




GIZALAN

VI. KONGRESU FEDERALA



PUBLIKOA SENDOTZEKO ANTOLATU

LANGILERIA
ANTOLATU,
GIZARTEA
ERALDATU

azaroak 13 >>>

KURSAAL / Donostia

ELA

GIZALAN



**LANGILERIA ANTOLATU,
GIZARTEA ERALDATU**
MÁS SINDICATO, MÁS VIDA

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	4
GAI-ORDENA.....	5
ARAUDIA	6
KUDEAKETA TXOSTENA.....	16
EBAZPENAK.....	39
BATZORDE IRAUNKORRERAKO PROPOSAMENA	55

AURKEZPENA

Kongresukide agurgarria,

Argitalpen honetan jasota daude Donostiako Kursaalean datorren azaroak 13an ospatuko dugun kongresu-eztabaidarako beharrezko testu guztiak. Testu horiek aurrez posta elektronikoz bidali dizkizuegu.

Testu hauen artean, hiru nabarmendu nahi ditut bereziki, izan ere, bozketa bidez erabakiko dira:

- Kudeaketa txostena: federazioko zuzendaritzak azken hiru urteetan egindakoaren berri ematen du bertan, aurreko kongresu-mandatuei erantzuten saiatuaz.
- Hurrengo lau urteetarako Federazioaren Batzorde Iraunkorrerako proposatutako pertsonen zerrenda: oso harro nago hautagaitza hau aurkezteaz, ELAko Nazio Ba-tzordearen bermea baitu gure estatutuek ezartzen duten bezala, eta lan honetarako gaitasuna eta sinesgarritasuna duten lagunek osatua dago.
- Ebazpenak: hurrengo urteetan garatuko dugun gure programaren oinarri nagusiak jasotzen dira bertan.

Gure federazioaren zuzendaritza eta ekintza-ildoak aukeratzea ardura handiko ariketa da. Ziur nago denok izango garela une berezi honen pareko gure erakundearentzat.

Bestalde uste dut Kongresu hau berriz elkartzeko une hunkigarria izango dela federazioko lehen lerroko militanteentzat.

Ziur nago lan ona eta kongresu-eztabaida aberatsa egingo dugula.

Besarkada handi bat denontzat.

Igor Eizagirre Alza

Gizalan Federazioko Idazkari Nagusia

GAI-ORDENA

8:30 – 9:30	Kongresukideen akreditazioa
9:30 – 9:50	Kongresuaren irekiera eta Mahaiko kideen aukeraketa
9:50 – 10:05	Mahaiaren agurra, abisuak eta gonbidatuen aurkezpena
10:05 – 10:35	ELA idazkari nagusiaren parte hartzea
10:35 – 11:20	Batzorde Iraunkorraren Kudeaketa txostenaren aurkezpena
11:20 – 11:40	Kudeaketa Txostenari erantzunak
11:40 – 11:50	Idazkari Nagusiaren erantzuna
11:50 – 11:57	Bideoa
11:57 – 12:00	Kudeaketa Txostenaren bozketa
12:00 – 12:30	Deskantsua
12:30 – 12:45	Kanpoko organizazio baten hitzartzea
12:45 – 13:00	Ebazpena “Publikoa dena eraiki, arlo sozialetik polarizatu, hemen erabaki” aurkeztu eta bozkatu
13:00 – 13:15	Kanpoko organizazio baten hitzartzea
13:15 – 13:30	“Antolatu, militatu, sindikalizatu: Boterea eraikitzen zerbitzu publikoak defendatzeko” Ebazpena aurkeztu eta bozkatu
13:30 – 13:45	“Euskararen aurkako oldarraldien aurrean, zerbitzu publikotan euskaraz lan eta bizi” Ebazpena aurkeztu eta bozkatu
13:45 – 13:50	Abisuak Bazkaria
15:30 – 15:45	“Osasun mentala: guztion eskubidea, lehentasuna eta borroka” Ebazpena aurkeztu eta bozkatu
16:20 – 16:35	“Zaintzak publikatu” Ebazpena aurkeztu eta bozkatu
15:45 – 16:00	Batzorde Iraunkorrerako hautagaitzaren aurkezpena
16:00 – 16:20	Batzorde Iraunkorrerako bozketa
16:35 – 16:45	Bideoa
16:45 – 17:00	Mahaiaren agurra, bozketaren emaitzak jakinarazi eta Batzorde Iraunkor berria hautatzeko akta egitea
17:00 – 17:20	Idazkari Nagusiaren hitzartzea
17:20 – 17:30	Kongresuaren amaiera ekitaldia

ARAUDIA

1. ARTIKULUA.

Izena eta eremua

1. Gizalan Federazioa da zerbitzu publikoetan lan egiten duten afiliatuak biltzen dituen Egitura Profesional Nazionala, haien erakunde edo pertsona enplegatzailea publiko zein pribatua dela ere.
2. Gizalan Federazioa Euskal Langileen Alkartasuna-Solidaridad de Trabajadoras y Trabajadores Vascos Sindikatuaren parte da; honen siglak, ELA zein ELA/STV dira.
3. Lurralde-eremua Sindikatuarena da eta, beraz, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako lurraldeak hartzen ditu.
4. Sindikatuaren Estatutuek eta Araudiek ezarritako markoan Gizalan Federazioa da Sindikatuko Egitura Profesionala bat (barne-eraginetarako "Federazio" izena duena), zeinak Sindikatuaren Estatutuen eta araudi honen baitan diharduen.

2. ARTIKULUA.

Xedea eta jarduteko bitartekoak

1. Sindikatuaren helburu orokorren baitan, Gizalan Federazioaren xedea da zerbitzu publikoetan lan egiten duten afiliatuak, hauen erakunde edo pertsona enplegatzailea publiko zein pribatua dela ere, elkartu eta antolatzea, haien eskubide eta interesak era egokia-goan defendatzeko eta lan- zein bizi-baldintzak hobetzeko.
2. Bere helburu profesional espezifikoak eta ELAren helburu orokorrak iristeko, Gizalan Federazioak bere esku dituen ekintza sindikaleko bitarteko guztiak baliatuko ditu, honako ekintza-eremuetan arreta berezia jarritz:
 - a) "Federazioa" osatzen dutenen eta langile guztien arteko elkartasuna sustatu.
 - b) Afiliatuak modu eraginkorrean antolatu.
 - c) Afiliatu berriak erakartzea sustatu, etengabe landuz informazioa, propaganda eta proselitismoa.
 - d) "Federazio" honi dagozkion sektoreetan diharduten langileen aldarrien aldeko presio eta mobilizazio neurriak sustatu eta babestu, Erresistentzia-Kutxa modu egokian erabiliz.
 - e) Afiliatuen arazo profesionalen arreta eta konponbide eraginkorra bere gain hartu, horretarako era koordinatuan baliatuz "Federazio"aren berezko bitartekoak, Eskualde-batzenak eta Sindikatuaren zerbitzuak.
 - f) "Federazio"aren eremuan Sindikatuaren politiken berri eman eta hauek egokiro garatu.
 - g) Afiliatuak ordezkatzeko enpresaburuen elkarteetan, administrazio- eta justizia-erakundeetan eta behar den beste erakunde eta antolakunde guztietan. Ordezkatzeko funtzioen artean arreta berezia jarriko da lan-hitzarmen eta akordioen negoziazioan.
 - h) "Federazio"aren eta Sindikatuaren berezko bitartekoak baliatuz arduradun eta militanten prestakuntza sustatu.
 - i) Afiliatuei informazioa eman Sindikatuaren eta "Federazio"aren beraren argitalpenen bidez, halaber beste komunikabide batzuk ere erabiliz langile guztiengana iristeko.
3. Sindikatuaren ildoan baitian, Gizalan Federazioak ELAko gainerako Egitura Profesionala eta Eskualde-batzekin lan egingo du.

3. ARTIKULUA.

Afiliatu bihurtu eta izaera hori galtzea

Afiliatu bihurtzeko eta izaera hori galtzeko modua Sindikatuaren Estatutueta eta Diziplina-Araudian ezarritakoaren arabera izango da.

4. ARTIKULUA.

Egitura Profesionaleko organoak

1. Gizalan Federazioaren organoak dira Kongresu "Federala", Batzorde "Federala", Idazkaritza, Batzorde Iraunkorra eta Eskualde-Batzorde "Federalak".
2. Organo "federalak" balio osoz eratutzat joko dira, behar bezala deituta, kideen erdiak baino gehiagok parte hartzen badute bileran.
3. Organo "federalet" gehiengo soilez hartuko dituzte erabakiak, gehiengo kualifikatua espresuki eskatzen den kasuetan izan ezik.
4. Batzorde Iraunkorreko edo Idazkaritza "Federal"eko kide izateko lau urteko antzinatasuna behar da, etenik gabe, ELAn afiliatuta. Batzorde "Federal"eko kide izateko, berriz, bi urteko antzinatasuna. Batzorde "Federal"ak, salbuespenez, baldin eta arrazoi nahikoa bada eta kasuan kasu, kargu horietara iristeko antzinatasun eskakizuna salbuetsi dezake.
5. Kide bakoitzak boto bat izango du, eta hau ezin da eskuordetu.
6. Aipatutako organoetako kargudunak berrautatzeko aukera dago.

5. ARTIKULUA.

Bateraezintasunak

1. Kongresu "Federal"eko, Batzorde "Federal"eko, Idazkaritzako, Batzorde Iraunkorreko eta Eskualde-Batzorde "Federal"etako kide izatea bateraezina da talde edo alderdi politiko baten zuzendaritza-organoetako kide izatearekin eta kargu publiko bat izatearekin. Hauteskunde politikoetan parte hartzea aski izango da ardura sindikaletik kentzeko. Halaber, bateraezintasun hori aplikatuko zaie ordu-kreditu sindikala metatu eta ekintza sindikalean dedikazio eskusiboa duten pertsona guztiei.
2. ELAko afiliatuek ezin dute beren izaera sindikala erabili hauteskundeak egiteko, helburu politikoak lortzeko edo berez sindikalak ez diren beste helburu batzuetarako.

KONGRESU "FEDERALA"

6. ARTIKULUA.

Kongresu "Federal"aren osaera

1. Kongresu "Federala" da Egitura Profesional Nazionalaren organo gorena. Berau osatuko dute Batzorde "Federala" osatzen duten kideek -hauek eskubide guztiak dituzten kongresukideak izango dira- eta Eskualde-"Federazio"etan hautatutako 150 ordezkariak.
2. Eskualde-"Federazio" bakoitzak hasteko lau kongresukide izango ditu. Gainerako kideak, 150 ordezkari osatu arte, Eskualde-"Federazio"en artean banatuko dira egiaztatutako afiliazioaren proportzioan.



3. Kongresua hasi baino lau hilabete lehenago, gutxienez, Idazkaritzak Eskualde-Batzorde "federal"ei jakinaraziko die zenbat ordezkari dagozkion, eta organo horiek hautatuko dituzte Kongresuan Eskualde-"Federazio"aren ordezkariak nortzuk izango diren.
4. Eskualde-"Federazio" bakoitzari hasierako zenbatekotik gora dagokion ordezkari kopurua erabakitzeke Kongresua deitzen den unean afiliatuta dagoen jende kopurua zenbatuko da.
5. Eskualde-"Federazio"ek Idazkaritzari jakinaraziko diote bere ordezkarien zerrenda Kongresua baino hiru hilabete lehenago.
6. Parte hartzea ezinezkoa denean, hau behar bezala justifikatuz gero, kongresukide bat ordezkari dezake bera hautatu duen organizazioak. Ordezkapena Idazkaritzari jakinarazi behar zaio gutxienez Kongresua hasi baino hamar egun lehenago. Behin epe hori igaro denean ez da ordezkari onartuko.
7. Kongresu "Federal"eko ordezkariak ELAn gutxienez urtebeteko afiliazio-antzinatasuna izan behar dute, Kongresua deitzen den unean. Salbuespen gisa, Batzorde "Federal"ak, baldin eta arrazoi nahikoa bada eta banan-banan erabakiz, antzinatasunaren eskakizuna salbuetsi dezake.

7. ARTIKULUA.

Kongresu "Federal"erako deialdia

1. Kongresuaren ohiko saioa lau urtean behin izango da, Batzorde "Federal"ak deituta, gutxienez sei hilabete lehenago. Idazkaritzak proposatu eta Batzorde "Federal"ak erabakitzen duen egun eta lekuan izango da.
2. Kongresuko gai-zerrenda Idazkaritzak finkatuko du, Batzorde "Federal"ak sartzea erabakitako gaien arabera, eta ordezkariak gutxienez bi hilabete lehenago igorriko die.

8. ARTIKULUA.

Kongresu "Federal"aren eskuduntzak

Kongresuan datza "Federazio"aren subiranotasuna. Zehazki, Kongresuaren eskuduntzak dira honako hauek:

- a) Gizalan Federazioaren helburuak eta orientazio orokorra definitzea.
- b) Batzorde Iraunkorraren Kudeaketa-Txostena onartzea.
- c) Batzorde Iraunkorra hautatzea.
- d) Gizalan Federazioa beste Egitura Profesional batekin edo batzuekin bat egitea onartzea, eta sektoreak bereizi nahiz txertatzea, Sindikatuaren Estatutuen eta hauek garatzeko Araudien baitan.

9. ARTIKULUA.

Kongresu "Federal"aren gai-zerrenda

1. Gai-Zerrenda Idazkaritzak finkatuko du, eta Batzorde "Federal"ak erabakitako gaiak jasoko ditu.
2. Gai-Zerrendan gutxienez puntu hauek agertuko dira:
 - Batzorde Iraunkorraren Kudeaketa-Txostenaren onarpena

- · Datozen lau urteetarako lan-ildoak orientatzeko Ebazpenen onarpena
 - · Batzorde Iraunkor berriaren hautaketa
3. Aurreko atalean aipatutako ebazpenen zirriborroen inguruan Eskualde-"Federazio"ek eztabaida-saioak antolatuko dituzte beren eskualde-eremuko kongresukideekin.
 4. Idazkaritzak Kongresuari bozkatzeko beste Ebazpen batzuk ere aurkeztu ahal izango dizkio. Hauen testua ere ordezkarietara bidaliko zaie, Kongresua baino gutxienez hilabete lehenago, baldin eta Ebazpena aurreikusi gabeko egoera bati buruzkoa ez bada.

10. ARTIKULUA.

Batzorde Iraunkorraren Kudeaketa-Txostena

1. Batzorde Iraunkorraren Kudeaketa-Txostena Kongresuak bozkatuko du. Txostena ordezkarietara bidaliko zaie, Kongresua baino hilabete lehenago.
2. Eskualde-"Federazio"ek Kongresuan hitza hartu ahal izango dute Kudeaketa-Txostenari buruzko iritzia adierazteko.

11. ARTIKULUA.

Kongresuko Mahaia

1. Kongresuko Mahaia osatuko dute lehendakari batek, lau kidek -lurraldeko bana- eta akta-idazkari batek. Idazkaritzak proposatuko ditu Mahaiko kideak eta Kongresuak onartuko ditu.
2. Mahaiaren ardura da Kongresua behar bezala garatzea eta Gai-Zerrenda modu egokian aintzat hartzen dela, hitz-hartzeak egokituko ditu, eztabaidak moderatuko ditu eta bozketak ordenatuko ditu. Bere eginkizuna da kongresua ireki eta ixtea.

12. ARTIKULUA.

Bozketak

1. Kongresuak honela hartuko ditu erabakiak:
 - Aho batez, gehiengo nabarmena dagoenean.
 - Lehentasunez, jarrera baten gehiengoa behar bezain argi ikusten denean.
 - Ohiko bozketaz, botoak zenbatuta. Botoak zenbatzea beharrezkoa izango da erabakiak gehiengo kualifikatua eskatzen badu.
2. Kongresuko Mahaiak edota ordezkariak, gehiengoz, erabaki dezakete bozketa bat nominala edo sekretua izatea.
3. Nolanahi ere, Batzorde Iraunkorra hautatzeko bozketa nominala eta sekretua izango da.

13. ARTIKULUA.

Gonbidatuak

Idazkaritza "Federal"ak Kongresura gonbidatuko ditu egoki deritzen erakunde eta pertsonak.



14. ARTIKULUA.

Ohiz kanpoko Kongresua

1. Kongresuak ohiz kanpoko saioak ere izan ditzake. Ohiz kanpoko Kongresua deitzeko erabakia Idazkaritzaren esku dago, bere kideen bi herenen gehiengoz, eta Batzorde "Federal"ak onartu behar du.
2. Ohiz kanpoko Kongresuaren deialdia gutxienez hilabete lehenago egin behar da.
3. Ohiz kanpoko Kongresuan soilik garatuko dira deialdian berariaz agertzen diren gaiak.

BATZORDE "FEDERALA"

15. ARTIKULUA.

Batzorde "Federal"aren osaera eta hautaketa

1. Batzorde "Federala"?da Gizalan Federazioaren Kongresu arteko organo gorena. Idazkaritzako kideek eta Eskualde-"Federazio"ek Eskualde-Batzorde "Federal"en bidez izendatutako 45 lagunek osatuko dute.
2. Behin Kongresua burututa, Batzorde Iraunkorrak Eskualde-"Federazio" bakoitzari jakinaraziko dio Batzorde "Federal"ean dagokion ordezkari kopurua; hau honela banatuko da:
 - a) Eskualde-"Federazio" bakoitzari hasteko kide bana dagokio.
 - b) Gainerako kideak, 45 osatu arte, Eskualde-"Federazio"en artean banatuko dira azken Kongresu "Federala" egin zen unean egiaztatutako afiliatu kopuruaren proportzioan.
 - c) Eskualde-"Federazio"ek Idazkaritzari haien ordezkarien zerrenda helaraziko diote, bi hilabeteko epean.
 - d) Batzorde "Federal"eko kideak berrituko dira ohiko Kongresu "Federal" bakoitzaren ondoren.
 - e) Ohiko Kongresuen artean sortzen diren hutsuneak dagokion Eskualde-"Federazio"ak osatuko ditu; halaber, arrazoi justifikaturik bada, Batzorde "Federal"eko bere ordezkariak kargutik kendu ahal izango ditu.
 - f) Batzorde "Federal"ean sektoreetako errealitate ezberdinak ordezkatzeko eginahala egingo da.

16. ARTIKULUA.

Batzorde "Federal"aren eskuduntzak

Bereziki hauek dira Batzorde "Federal"aren eginkizunak:

- a) Kongresuak finkatutako helburu eta orientabide orokorrak betetzen direla zaintzea.
- b) Idazkaritzaren eta Batzorde Iraunkorraren jarduera gainbegiratzea.
- c) Idazkaritzako kideak izendatu, kargutik kendu eta ordezkatzzea.
- d) Sindikatuko organo eta erakundeetan Gizalan Federazioaren ordezkariak izendatzea.
- e) Kongresuari proposatzea Batzorde Iraunkorra osatzeko hautagai-zerrenda.
- f) Gizalan Federazioaren barne-araudia erabakitzea, Idazkaritzak proposatuta.

- g) Atal sindikalen eta Eskualde-"Federazio"en jarduera arautzea.
- h) Egoki deritzen Batzordeak eratzea.
- i) Barne-araudi honetan aitortzen zaion beste eskuduntza oro.

17. ARTIKULUA.

Batzorde "Federal"aren saioak

1. Batzorde "Federala" gutxienez urtean bitan bilduko da. Deialdia Idazkaritzak egingo du; halaber, Batzorde "Federala" bera osatzen duten kideen heren batek ere egin dezake deialdia.
2. Deialdian gai-zerrenda finkatuko da; hala ere, beste gai batzuk ere lantzeko aukera dago, baldin eta Batzorde "Federal"ak berak erabakiz gero, bere kideen bi herenen gehiengoz.
3. Batzorde "Federal"eko kideren bat, justifikaziorik gabe, elkarren segidako hiru saiotara agertzen ez bada besterik gabe organoan duen kargutik kenduko da.

IDAZKARITZA "FEDERALA"

18. ARTIKULUA.

Idazkaritzaren osaera eta hautaketa

1. Idazkaritza osatuko dute eskualde-idazkariek eta Batzorde Iraunkorrak.
2. Eskualde-idazkarien hautaketa, kargutik kentzea eta ordezkapena Batzorde "Federal"ari dagokio, Batzorde Iraunkorrak proposatuta, aurrez Nazio Batzordearen adostasuna izanik, hala kopuruari, nola proposatutako edo kargutik kendutako kideei dagokienez. Nolanahi den, Idazkaritzaren izendapena edo berrespena ohiko Kongresu "Federal" bakoitzaren ondoren izango da.

19. ARTIKULUA.

Idazkaritzaren eskuduntzak

1. Idazkaritzari dagokio:
 - a) Negoziazio kolektiboa eta "Federazioa"ren ekintza sindikala garatu eta bultzatzea, Sindikatuaren jardunbideen baitan.
 - b) Hauteskunde sindikalak eta afiliazioa sustatu eta bultzatzea.
 - c) Eskualde-Batzorde "Federalak" gidatzea.
 - d) Eskualde-Batzorde "Federalak" hautatzeko prozesuan afiliatu guztien parte hartzea bermatu eta sustatzea.
 - e) Egoki iritzitako Sektore-Batzordeak sortzea, ekintza sindikala indartze aldera.
 - f) Barne-araudi honetan aitortzen zaion beste eskuduntza oro.
2. Idazkaritza gutxienez urtean hirutan bilduko da.



BATZORDE IRAUNKORRA

20. ARTIKULUA.

Batzorde Iraunkorraren osaera eta hautaketa

1. Kongresua baino bi hilabete lehenago Idazkaritzak Batzorde "Federal"ari proposatuko dio -eztabaida eta onarpenerako- Kongresuan bokatuko den Batzorde Iraunkorrerako hautagai-zerrenda.
2. Kongresuak hautatuko ditu, Batzorde "Federal"ak proposatuta, Batzorde Iraunkorreko kideak, eta adieraziko du zein kargutarako proposatzen dituen; Idazkariak gainera zehaztuko du nortzuk izango diren "Federazio"aren Nazio Batzordeko ordezkariak.
3. Hautagai-zerrenda osorik bozkatuko da; onartua izateko kreditatutako kongresukideen gehiengo absolutuak aldeko botoa eman behar du. Hau lehen bozketan lortu ezean hautagai bakoitza bozkatuko da, baldin eta Batzorde "Federal"ak ez badu erabakitzen Kongresuari talde berri bat proposatzea.
4. Banakako bozketan proposatutako hautagairen batek gehiengo absoluturik lortzen ez badu Batzorde "Federal"ak Kongresuari beste hautagai bat proposatu behar dio. Haatik, Batzorde "Federal"ak baderitza egindako proposamenaren zati bat atzera botatzeak goitik behera aldatzen duela, hautagai-zerrenda osoa erretiratu eta Kongresuari beste hautagai batzuk proposa diezaizkioke.
5. Edonola ere, Batzorde Iraunkorrerako proposatutako kideak eta hautagai-zerrendak aurrez Nazio Batzordearekin adostu beharrekoak dira.

21. ARTIKULUA.

Batzorde Iraunkorreko ordezkapen eta ezeztatzeak

1. Batzorde "Federal"ak, Idazkaritzaren proposamenez, osatuko ditu Kongresu arteko epealdian Batzorde Iraunkorrean gertatzen diren hutsuneak, aurrez Nazio Batzordearekin adostuta.
2. Batzorde "Federal"ak, Idazkaritzaren proposamenez, Kongresuan Batzorde Iraunkorreko kide bakoitzari esleitu zaizkion eginkizunak alda ditzake. Halaber, ordezkari ditzake Federazioari Nazio Batzordean dagozkion kideak.
3. Idazkaritzak, Idazkaritzak, arrazoi larria tarteko eta kideen bi hereneko gehiengoz, Batzorde "Federalari" proposatu ahal izango dio Batzorde Iraunkorreko kide bat kargutik kentzea, eta organo horrek ebatzi arte haren funtzioak behin-behinean eteteko ahalmena du. Ezeztatze erabakia onartzeko Batzorde "Federal"aren bi herenen aldeko botoa behar da.
4. Artikulu honetan ezarritako ordezkapen- eta ezeztatze-ahalmena gauzatzeko, betiere, aurrez Nazio Batzordearen adostasuna beharrezkoa da.

22. ARTIKULUA.

Batzorde Iraunkorraren eskuduntzak

1. "Federazioa" kudeatu eta gidatzea Kongresuan erabakitako helburu eta ildo nagusien arabera.
2. Erresistentzia-Kutxako kalteordain eskariak aztertu eta, hala badagokio, Sindikatuaren Batzorde Eragileari jakinaraztea.

3. Araudi honetan aitortzen zaion eskuduntza oro.
4. Batzorde Iraunkorra gutxienez hilean behin bilduko da.

ESKUALDE-BATZORDE "FEDERAL"AK

23. ARTIKULUA.

Eskualde-Batzorde "Federal"en osaera eta hautaketa

1. Eskualde-Egitura Profesionalak ("Eskualde-Federazioak") dira Gizalan Federazioak bere buruari eman dizkion egiturak lurralde mailan antolakuntza eta ekintza sindikala erraztu eta indartzeko. Eskualde-"Federazioa" gidatuko du Eskualde-Batzorde "Federal" batek, eta hau eskualdeari atxikitako idazkari "Federal"ek koordinatuko dute.
2. Eskualde-Batzorde "Federal"ak honako kideek osatuko dituzte:
 1. Eskualde-"Federazio"ko arduradunak edo arduradunek; idazkari izendatuko direnak eta eskualdea ordezkatzeko dutenak
 2. Eskualde-"Federazio"ko ETEetako arduradunak.
 3. Lanaldi osoz liberatutako jendea, baita lanaldi partziala dutenak ere, hainbat ordezkari ordu sindikalak metatzen dituztenean bere jarduera lan-zentro ezberdinetan batik bat eskualdean garatzeko.
 4. 25 afiliatu edo gehiago dituen Atal Sindikal bakoitzeko ordezkari bana, gutxienez. Beste kide bat izendatu ahal izango du atal sindikalak 100 afiliatu baino gehiago badu.
 5. Aurreko afiliatu kopuruaren baldintza bete ez arren idazkari "federal"ak proposatzen dituen lan-zentroetako ordezkariak.
 6. Eskatzen duten eta aktibo diren afiliatuek, honako eskakizunak betetzen dituztenean:
 - i. Afiliatuta gutxienez urtebete izatea. Eskualde-Batzorde "Federal"ak, salbuespenez, baldin eta arrazoi nahikoa bada eta kasuan kasu, organoko kide izateko antzintasun eskakizuna salbuetsi dezake.
 - ii. Sindikatuan afiliatuta gutxienez bi urte daramaten Eskualde-"Federazio"ko kideen berariazko sostengua jasotzea -horretarako inprimaki bat sinatuz-, honako eskalaren arabera:
 - a) Eskualde-"Federazio"ak 1.000 afiliatu arte baditu: 15 lagunen berariazko sostengua
 - b) 3.000 afiliatu arte, 30 lagunena
 - c) 5.000 afiliatu arte, 40 lagunena
 - d) 8.000 afiliatu arte, 45 lagunena
 - e) 8.000 afiliatutik gora, 50 lagunena

Federazioaren kongresu arteko aldian afiliatu bakoitzak beste bi afiliaturi eman ahal izango dio sostengua.
 - iii. Organoak berak onartzea kideen gehiengo osoz.
3. 2. artikuluko D, E eta F atalen baitan organoko kide izan daitezkeen enpresa bereko langileak ezin dira Organoko kide guztien % 5 baino gehiago izan. Kasu honetan, enpresako afiliatuek hautaketa demokratikoz erabakiko dute Eskualde-Batzorde "Federal"ean



nortzuk sartuko diren. % 5eko portzentajea ez da aintzat hartuko kopurua kide bat edo birekin gaindituko balitz.

24. ARTIKULUA.

Eskualde-Batzorde “Federal”en eskuduntzak

1. Eskualde-Batzorde “Federal”en eginkizunak honakoak dira / dagokie:
 - a) Lurralde mailan Gizalan Federazioaren antolakuntza eta ekintza sindikala erraztu eta indartzea.
 - b) Eskualde “Federazio”aren Kongresuko eta Batzorde “Federal”eko ordezkariak hautatzea.
 - c) Eskualde-Batzorde “Federal”en funtzionamenduko eta kideak hautatzeko arau orokorrak finkatu.
 - d) Lanbidearteko Eskualde-Batzordeari Eskualde “Federazio”aren lan-plana proposatu.
 - e) Araudi honetan aitortzen zaion beste eskuduntza oro.

25. ARTIKULUA.

Atal sindikalak

Atal sindikalek elkartzen dituzte enpresa edo lan-zentro jakin bateko afiliatuak. Eratzeko, jarduteko eta arduradunak hautatzeko arauak Sindikatuaren Estatutuetakoak eta hauek garatzen dituzten Araudikoak izango dira, zein Batzorde “Federal”ak ezarritakoak. Batzorde “Federal”ak emandako arauak ezin dira haiekiko kontrajarriak izan.

26. ARTIKULUA.

Nazioarteko afiliazioa

1. Gizalan federazioa honako nazioarteko erakundeetako kide da: Zerbitzu Publikoetako Nazioartekoa (PSI), Zerbitzu Publikoetako Europako Federazioa (EPSU), Polizia-Sindikatuaren Nazioarteko Batasuna (EUROCCOP), Hezkuntzako Nazioartekoa eta beronen Europako eskualde-organizazioa (ETUCE), Kazetarien Nazioarteko Federazioa (IFJ/FIP) eta Kazetarien Europako Federazioa (EFJ/FEJ).
2. Idazkaritzak honen inguruko edozein aldaketa erabaki dezake. Erabakiak Sindikatuaren oniritzia izango du eta Batzorde “Federal”ak berretsi behar du.

27. ARTIKULUA.

Aurreikusi gabeko egoerak

Egoeraren bat nola ebatzi behar den barne-araudi honetan adierazten ez bada Batzorde “Federal”ak hartuko du hari buruzko erabakia.

28. ARTIKULUA.

Barne-araudiaren erreforma

1. Araudi honen aldaketa Batzorde “Federal”ari dagokio, Idazkaritzaren proposamenez.

2. Aldaketa-proposamena Batzorde "Federal"eko kideek gutxienez hamabost egun lehenago ezagutu behar dute. Hura gauzatzeko Batzorde "Federal"eko kideen bi herenen aldeko botoa beharrezkoa izango da.
3. "Federazio"aren barne-araudia ez da indarrean sartuko Nazio Batzordearen oniritzia izan arte.

29. ARTIKULUA.

Desegitea

1. Gizalan Federazioa desegitea, hala badagokio, xede horrexekin deitutako Kongresu "Federal" batek erabakiko du, Sindikatuaren Estatutueto 53.1 artikuluan ezarritako kasuan izan ezik. Batzorde "Federal"ari dagokio deialdia egitea, aurrez Nazio Batzordearekin adostuta.
2. Desegiteko erabakia gauzatzeko emandako botoen hiru laurdeneko gehiengoa behar da, betiere gutxienez Kongresu "Federal"erako hautatutako pertsonen bi heren adina badira.
3. Gizalan Federazioak izan litzakeen ondasun eta eskubideak Sindikatuaren esku geratuko dira.

KUDEAKETA TXOSTENA

Sarrera

Kudeaketa txosten honek Gizalan Federazioaren Batzorde Iraunkorrek azken kongresuan onartutako ebazpenak oinarri hartuta azken urteotan egindako lanaren berri eman nahi du. Egindako jarduera testuinguru sozial, ekonomiko eta politikoan kokatzen saiatuko gara, eta aldi berean, epe honetan ateratako ondorio nagusi batzuk ere plazaratuko ditugu.

Txostenak 2022ko ekainean ospatutako azken kongresutik 2025eko martxora arteko kudeaketa sindikala jasotzen du. Besteak beste, honako arlo estrategiko hauek aztertzen dira: afiliazioaren bilakaera, hauteskunde sindikalak, antolakuntza, zerbitzu juridikoekin eta gainerako arloekin egindako elkarlana, lan osasuna eta negoziazio kolektiboa. Etorkizuneko erronka nagusien inguruko hainbat gogoeta ere jasotzen dira.

Edonolako analisisan murgildu aurretik, epealdi honetan zendu diren militanteak gogoan izan nahi ditugu. Hitz xume hauen bidez, gure oroimenera ekarri nahi ditugu, eta bihotzez eskertu Federazioari eta Konfederazioari eskaini dioten guztia. Gure dolumin eta elkartasun osoa adierazi nahi diegu haien senide eta sindikatuko kideei. Agur eta ohore!

Era berean, gure eskerrik beroenak helarazi nahi dizkiegu Gizalaneko ordezkari, liberatu eta militante guztiei. Izan ere, 2008tik arrastaka dakarkigun krisiak eta zorpetze ikaragarriak, pandemiak areagoturiko egoerak, geroz eta nabariagoa den autogobernuaren higadurak, krisi klimatikoak eta politika belizisten aldeko hautuak oso testuinguru konplikatu sortu digu lan sindikalerako. Hala ere, zailtasunak zailtasun, gure autonomia politiko eta ekonomikoak, kontrabotere sindikalismoa aurrera eramateko hautu garbiak, geroz eta gehiago garatzen ari garen antolakuntza zabal eta sendoak zein gure federazioan dihardugun militante guztion lan onak aukera eman digu egoerari duintasunez erantzuteko. Txosten hau lan horren isla da. Eskerrik asko.

1. Gure lanaren testuingurua: sistemaren krisia eta zerbitzu publikoak indartzeko beharra

Ziklo politiko eta ekonomiko bereziki gogor batean gaude murgilduta: kapitalaren logikek indar handiz ari dira bizitzaren esparru guztiak zeharkatzen. Digitalizazioak, finantzarizazioak, negoziazio kolektiboaren aurkako ofentsibak eta gero eta lan prekarioagoen egituratzak langile klasearen desjabetze egonkorra ekarri dute. Zerbitzu pribatuetan –non subkontratazioa, lanpostu arteko etengabeko rotazioa, lan ikusezinen ugaritzea eta baldintza duinen urrake ta ohikoak diren– dinamika horiek oso modu nabarmenean agertzen dira. Baina, ezin dugu ahaztu, logika horiek sektore publikora ere gero eta indartsuago iristen ari direla, ares-tian aipaturiko desjabetze prozesua administrazioaren bidez ere gauzatzen delarik, pribatizazio, azpikontratazio eta egiturazko prekarizazioaren bidez.

Horri guztiari gehitu behar zaio krisien kudeaketa politikoaren norabidea: kapitalaren interesak lehenetsi dira sistematikoki. Lan erreformek, Next Generation funtsen erabilerak edota pandemiaren kudeaketak ereduzko egitura bat indartu dute: negoziazio kolektiboaren ahultzea, ekintza sindikalaren marjinazioa eta enpresa handien boterearen areagotzea. Testuinguru hori, gainera, gero eta legitimazio demokratiko gutxiagoko marko batean gertatzen ari da, non instituzioek ez dieten erantzuten gehiengo sozialen beharrei, eta eskuin muturraren gorakada frustrazio kolektiboan elikatzen den.

Egoera horren aurrean, Gizalanek -zerbitzu publikoen esparruan- ahalegin berezia egin du bere esku-hartzeko gaitasuna mantendu eta areagotzeko: lantokietan antolakuntza indartzeko, negoziazio kolektiboaren esparru propioak aldarrikatuz eta feminismoaren eta antiarrazismoaren ikuspegiak praktika sindikalaren erdigunean kokatuz. Errealitate zail askori aurre

egin behar izan diogu, baina hori guztia posible izan da lan kolektiboaren, sormenaren eta batez ere militantzia konprometituaren bidez.

2. Aberastasunaren banaketa geroz eta bidegabeagoa eta zerbitzu publikoen aurkako erasoen jarraipena

Azken hamarkadetan administrazio publikoek beren langileen lan-baldintzak progresiboki okertu dituzte, eta horrekin batera, zerbitzu publikoen kalitatea ere nabarmenki jaitsi da. Prozesu hau 2010. urtea baino lehen hasi bazen ere, ordutik aurrera politikek eta gobernuek prekarizazioaren bidea azkartu eta sakondu dute. Horren adierazle argia da azken urteetan sektore publikoak jaso duen finantziazio murrizketa sistematikoa.

Gaur egun, Hego Euskal Herrian aberastasunaren gero eta zati txikiagoa bideratzen da sektore publikora, eta Europako herrialdeekin alderatuta oso azpiko posizioan gaude. Hezkuntza eta osasungintza bezalako oinarritzko zerbitzuetan, gure ikerketek urtero erakusten dute Barne Produktu Gordinarekiko inbertsio publikoa Europako txikienetako bat dela bai EAEn eta bai Nafarroan. Irlandarekin, Bulgariarekin, Hungariarekin edo Luxemburgorekin partekatzen ditugu gastu publiko murriztaren mailak, eta horrek gure sistema publikoaren egonkortasuna eta kalitatea arriskuan jartzen ditu.

Lan-baldintzei dagokienez, soldaten pisuak BPGarekiko behera egin du azken urteetan, eta zerbitzu publikoek jasotzen duten finantziazioa, bai Eusko Jaurlaritzaren aldetik bai Nafarroako Gobernuarena, urrun dago Europako batez bestekoetatik. Hezkuntza eta osasun arloetan, inbertsio publikoaren beherakada etengabea izan da, eta presio fiskala ere oso apala da inguruko herrialdeekin alderatuta.

Horrez gain, gobernuek eta instituzioek zerbitzu publikoen kontrako diskurtsoa zabaldu dute azken urteetan, eta, aldi berean, autogobernua mugatzen duten neurriak mantendu dituzte. Horren adibide dira Estatuak ezarritako erreposizio tasaren muga edo soldata-igoe-ren gainera mugapenak. Neurri horiek, paperean finantza diziplina babesteko sortuak izan arren, praktikan tresna bihurtu dira sektore publikoa sistematikoki prekarizatzeko eta pribatizazioaren bidez desegiten jarraitzeko.

3. Politika neoliberalen ondorioak zerbitzu publikoetan

Aurreko atalean aipatutako neurri ekonomiko eta politikoek ondorio larriak izan dituzte zerbitzu publikoetan. Langile klasearen eta herritar zaugarrienen oinarritzko eskubideak bermatzea helburu duten egitura publiko horiek gero eta ahulagoak dira, bai zerbitzuaren edukian bai langileen lan-baldintzetan. Testuinguru honetan, batzuek egoera aprobetxatu dute diskurtso arrazistak indartzeko eta zergen ordainketa bera zalantzan jartzeko, eskubi-deen eta betebeharren arteko oreka soziala hausten saiatuz.



Enplegu ratioa

Azken kongresuan onartutako ebazpenetan enplegu publikoa sortzea erronka estrategikotzat jo genuen. Azken urteetan arlo horretan urrats batzuk egin badira ere, oraindik Hego Euskal Herriko enplegu publikoaren ratioa Europar Batasuneko eta Estatu Espainiarreko batez bestekoen azpitik dago. Gaur egun, Hego Euskal Herrian 190.000 langile publiko daude, 1.375.000 langile guztien artean. Horietatik 150.000 EAEkoak dira eta 40.000 Nafarroakoak.

	Langile publikoak	Langileak guztira
HEH	190.000	1.375.000
EAE	150.000	1.065.000
Nafarroa	40.000	310.000

Horrek esan nahi du gure enplegu publikoaren batz besteko ratioa %13,8 ingurukoa dela, Estatuan %16koa den bitartean. Europako OCDEko batez bestekoa %18 ingurukoa da, eta Europa iparraldeko herrialdeek askoz ere datu altuagoak erakusten dituzte: Norvegia (%30), Suedia (%29), Danimarka (%28) edo Finlandia (%25).

Datu kezkarri horri gehitu behar zaio beste errealitate bat: gure herriko zerbitzu publikoetan 120.000 langile baino gehiago ari dira lanean azpikontratutako enpresen bitartez. Horrela, administrazioek benetako "administrazio paraleloa" sortu dute, langileen eskubideak zein zerbitzua bera narriatzeko baldintzak eta esparruak erraztuz.

Publikoak izan beharko luketen zerbitzu eta sektoreak gero eta gehiago kudeatzen dira pribatuaren bitartez, eta zenbait kasutan sektore osoak pribatizatu egin dira. Horren adibide argiak dira zaintza-sistema eta adinekoen arreta-zerbitzuak, baina baita ere garraioa, energia, telekomunikazioak, informatika, finantzak edo ikerketa. Zenbait kasutan, gainera, kapital publikoa saldo-prezioan saldu da, edo inbertsio publiko handiak egin dira ondoren pribatizatu diren sektoreetan.

Beste zerbitzu asko, eta salbuespenak salbuespen (esaterako, sukalde ta garbiketa hezkuntzan oraindik badaude langile propioak) erabat azpikontratatu dira. Adibide gisa, ospitale eta ikastetxeetako sukalde eta jangelak, edota eraikin publikoetako garbiketa lanak aipatu daitezke, kasu gehienetan emakumeek burutzen dituzten lanpostuak.

Gainera, pribatizatutako sektoreetan zerbitzuak enpresa desberdinen artean zatikatzen dira, lan-baldintzak are gehiago prekarizatuz eta zerbitzuaren kalitatea okertuz. Pribatizazioa, beraz, ez da soilik langileentzako kaltegarri; herritar guztien eskubide eta bizi-baldintzen aurkako mehatxu zuzena ere bada.

Behin-behinekotasuna

Sektore publikoan bizi dugun behin-behinekotasunaren maila izugarri handia da, sektore pribatuko tasak hirukoizteraino iristen delarik kasu batzuetan. Azken kongresuan onartutako ebazpenak oinarri hartuta, gure helburu nagusietako bat izan da pribatizazioari ateak ixtea, enplegu publikoa sortzea eta egonkortzea, eta hori izan da sektore guztietan bultzatu ditugun gatazka eta greba dinamiken ardatz nagusia.

Zenbait kasutan garaipen garrantzitsuak lortu ditugu, esaterako udal esparruan eta EAEko Hezkuntzako sukalde eta garbiketa arloetan, baina oraindik bide luzea daukagu %8ko behin-behinekotasun tasara iristeko. Gaur egun egoera kezkarria da hainbat esparrutan:

- EAEko sektore publikoan %42koa da behin-behinekotasuna.
- Nafarroko sektore publikoan, langileen %47a da behin-behinekota.
- Osakidetzan, behin-behinekotasuna %50etik gora doa eta 27.000 langilek dute behin-behineko kontratua.
- EAEko Hezkuntza publikoan, irakasle, heziketa bereziko langile eta haurreskoletako langileen artean %30 inguruk ez dute lanpostu egonkorrik.

Egoera hau justifikatzeko, instituzio eta gobernuak erreposizio tasaren muga aipatzen dute behin eta berriz. Hala ere, "Iceta Legea" bezalako tresnak martxan jarri direnean, eta langile publikoak egonkortzeko aukerak formalki zabaldu direnean -nahiz eta nahikoak ez izan-, argi geratu da arazoaren erroa ez dela legediaren zurruntasuna, baizik eta borondate politikoaren falta. Administrazioek ez dituzte baliatu lege horiek eskaintzen zituzten marjina eta aukerak, eta horrek agerian uzten du -privatizazioaren hedapen bidean- hautatutako bide politikoa dela behin-behinekotasunaren atzean dagoen benetako arrazoia.

Lan baldintzen gainbehera

Administrazio publikoetan lan akordioak, beste behin ere, ez dira modu orokorrean berritu. Gobernuak patronalik autoritarioenak bihurtu dira. Instituzioek, askotan, sindikatuak langileak desmobilizatzeko tresna gisa erabili nahi izaten dituzte, eta zentzu horretan, administrazioentzat bigarren mailakoak diren proposamen partzialak egiten saiatzen dira; akordio merkeen bila dabilta, funtsezko elementuak negoziatu gabe.

Horren adibide da EAEko hezkuntza publikoa: sektore guztietan akordioak berritu badira ere, greba dinamika indartsuen ondorioz izan da, eta Jaurilaritzak akordio eskasak sinatzeko prest dauden sindikatuak bilatu ditu. Jarrera hori errepikatu egiten da azpikontratutako zerbitzuetan ere.

Egoera bereziki larria da sindikatu korporatiboak dauden sektoreetan. Sindikatu horiek kolektiboen arteko talka sustatzen dute, eta administrazioek mobilizazioak desaktibatzeko giltza gisa erabiltzen dituzte, gutxi batzuentzako hobekuntzen truke.

4. Eraso eta egoera larri honi aurre egiteko erreferente izan gara

Onartutako ebazpenei jarraituz, zerbitzu publikoak desegiteko estrategia honi aurre egin diogu, ez dugu beste aldera begiratu eta sektore publiko osoan zein sektoreetan eta azpikontratutako esparrutan mobilizazioa aktibatu dugu.

Hona hemen federazioak bere osotasunean eramandako mobilizazioen artean esanguratsuenak iruditu zaizkigunak:

Greba feminista Orokorra. Azaroak 30

Federazioak urteak daramatza zaintza-sistema publiko eta kalitatezkoa aldarrikatzen eta horren aldeko borroka eramaten. ELAren lidergoa argia izan da ildo horretan; horren adibide dira, besteak beste, pandemia garaian Hego Euskal Herriko gizarte ongizate sektore osoan deitutako hiru greba egunak, edo sektore desberdinetan gauzatutako gatazka eta mobilizazio ugariak. Testuinguru horretan, ELAk bat egin zuen 2023ko azaroaren 30ean Hego Euskal Herrian deitutako greba feminista orokorrarekin. Ekimen horren bidez, zaintza-sistema



publiko, unibertsal, doako eta kalitatezkoaren aldarrikapena indartu nahi izan genuen. Gure erronka ez da aldarrikapenean geratzea, baizik eta helburu hori errealitate bilakatzeko bidea egitea. Greba deialdia Konfederazioak egin zuen, eta federazioak bat egin zuen harekin.

Sektore publikoko osoko grebak bai EAE eta baita ere Nafarroan.

Bai EAE eta baita ere Nafarroan, sektore publiko osoa deitu dugu grebara. EAEn, hiru egun 2023 udazken eta 2024 ko negu tartean, hain zuzen ere Urriak 25, abenduak 19 eta martxoaren 12 an greba egin genuen. Nafarroan ere 2023ko otsailaren 15 ean eta 2025 eko apirilean 9an. Greba hauek helburu argia zuten, aldarrikapen batzuen baitan zerbitzu publikoak eta bere lan baldintzak hemen erabakitzea eta lan baldintzen gainbeherarekin amaitzea. Greba hauek, aurreko kongresuan ebazpenetan onartutako borroka ildoak izan dute ardatz: Enplegu publikoa sortu, kontsolidatu eta pribatizazioari atea itxi, eros ahalmena berreskuratu, plantillak gazteberritzeko neurriak, lan kargak arintzeko eta desburokratizatzeko neurriak, lan osasuna bermatzeko neurriak, euskaraz lan eta bizitzeko neurriak, berdintasun neurriak etab.

Esan dezakegu greba deialdi hauek, gobernuen eta alderdi batzuen jarrera aldaketa behartu dutela. EAJk PSOErekin Espainiako Gobernuaren osatzeko akordioan, Hego euskal Herrian langile publikoen soldata eta erreposizio tasa propioak ezartzeko aukera hitzartu dute. Nahiz eta oraindik ez den gauzatu, egindako greba hauek EAJ behartu dute langileen lan baldintzak Espainiako Gobernuarekin dituen negoziaketan kokatzera.

Bestetik ere, greba hauek sektoreetan egindako grebekin batera, urtez luzez gure agintariek erabili duten mantra batekin amaitzeko balio izan dute. Etengabe adierazi dute sektore publikoko langileen lan baldintzak Madrilen ezartzen zirela. eta Guk behin eta berriz adierazi dugu alde batetik gure agintariak Estatutik etorritako politika zentralistarekin bat egiteaz gain, aitzakia ederra zela murrizketak aurrera eramateko. Baita eta borondate kontua dela zerbitzu publikoak eta langileen lan baldintzak hemen erabakitzea ere. Inbestidura akordioak eta hurrengo hilabeteetan Gobernuak sektore batzuetan egindako proposamenek agerian utzi dute guk esandakoan arrazoia genuela. Borondate politikoa baldin badago edo greba bidez behartzen badugu, soldatak zein gainerako lan baldintzak hemen erabakitzeko formulak aurkitzen dira.

Greba hauek, sektorekoaz gain, langile publikoak lan baldintzak hobetzearekin batera zerbitzu publikoen narriadura eta hobetzearen beharra aldarrikatu dute. Gure agintariak zabaldu nahi duten pribilegiatu eta nagi ideiaaren gainetik, langile eta zerbitzu publikoak bizi duten narriadura eta indartzeko beharra ozen aldarrikatu dute.

Greba hauek, sektore publiko osoan egindakoak, lagundu dute ere hein batean aurretik zetozen eta ondoren etorri diren sektoreko greba eta mobilizazioak hauspotzen, esanguratsuak izan dira hezkuntza edo osasungintza esparruan eman direnak, bai EAE eta baita ere Nafarroan ere.

EAEko Hezkuntza publikoa

EAE ko hezkuntza publikoan azken lau urteotan sektore denetan hitzarmen berritzea izan da helburu nagusietako bat, eta horrek mobilizazio eta greba dinamika zabala ekarri du.

Sektore guztiek parte hartu dute borroka honetan, nahiz eta emaitzak eta sinatutako akordioak desberdinak izan. Irakasleen kolektiboan 9 greba egun egin ziren, eta azken akordioa sinatu zuten ordezkariak zuten sindikatu guztiek, ELA izan ezik. ELAk ez zuen sinatu, eduki partzial batzuk jaso arren (soldata igoera batzuk KPlari lotu gabeak izanda ere edo gazte-

berritze plan bat), grebetan aldarrikatutako funtsesko edukiak falta zirelako (hala nola ratio jaitsiera, desburokratizazioarako neurriak, behin behinekotasuna murrizteko neurriak edo 2021-2025 bitarteko eros-ahalmenaren berreskurapena) eta irakaslegoa grebekin jarraitze-ko prest eta indartsu zegoelako. Edonola, greba hauetan, beste sindikatuen posizioarekiko ELAren desberdintasuna markatzeko gai izan gara, irakaslegoarenaga heltzen asmatu dugu eta sinergiak sortu ditugu. Hau probesten eta jorratzen saiatu behar gara hurrengo ikasturteetan. Sukalde eta garbiketa sektorean, berriz, 4 greba egun eta beste 10 (2022an ELAk bakarrik deituta) izan ziren; azken hauetan, kontsolidazio akordio bermatzaile bat lortu zen. Hitzarmena, azkenean, ordezkariak duten sindikatu guztiek sinatu zuten. Kasu honetan, irakaslegoaren edo haurreskoletako Hitzarmenaren kontrara, grebetan aldarrikatutako edukiak jaso ziren sinatutako Hitzarmenean; Hala nola, ratio hobekuntza eta lanaldi murrizketak, 2021-2025 bitarteko eros-ahalmenaren berreskurapena edo gazteberritzeko neurriak zein behin behinekotasuna maila minimoetan mantentzeko EPE deialdia.

Haurreskoletan 2 greba egun egin ziren, baina akordioa LABek bakarrik sinatu zuen; Steilas eta ELA kanpoan geratu ziren. Haurreskoletakoa izan zen Hezkuntza publikoan ekindako greba zikloaren barruan greba egun gutxien egin zituen sektorea eta gero ikusi denez, eduki eskasak jaso dituen. Ez zuen soldata igoerarik jasotzen, ez gazteberritze planik ez enplegua bermatzeko neurririk ez eta lan kargak arintzeko ere. Heziketa bereziko sektorean Sektore publiko osoko grebekin egin zuten bat, baina gainerako sindikatuak uko egin zioten gainerako hezkuntza publikoko greba zikloaren barruan esparru hau barneratzeari. Greba propiorik egin gabe asko hobetu zitekeen Hitzarmen bat sinatzea erabaki baitzuten.

Hezkuntza legearen inguruan ere mobilizazioak izan dira. Bi greba egun deitu genituen, nahiz eta, zoritxarrez, greben egutegia eta unea beste sindikatu batzuek markatu zuten. Horrek gure gaitasuna baldintzatu zuen legearen edukietan benetako eragina izateko.

Nafarroako Hezkuntza Publikoa

Nafarroako Hezkuntza Publikoan hiru greba egun orokor egin ziren, eta horrez gain, eskualdeka antolatutako paro egunak ere izan dira. Mobilizazio horiek hezkuntza publikoaren defentsan eta lan-baldintzak hobetzeko helburuan kokatu dira.

EAEko Gizarte Ekimeneko Ikastetxeak

EAEko Gizarte Ekimeneko Ikastetxeen sektore honetan ere greba dinamika garrantzitsua garatu da. 2024ko otsailean amaitu zen greba, 14 eguneko grebaren ondoren lortutako akordioarekin. Akordioa oso positiboa izan da hainbat arlotan: %16ko soldata igoera jasotzen du, eskola ordu eta lanaldian murrizketak ezartzen ditu, lanbide heziketaren arloan hobekuntzak barneratzen ditu eta birkokapenerako araudia hitzarmenean txertatzea adostu da.

Hurrengo ikasturtean akordioa hitzarmenen batean jasotzea eta adostutako edukiak garaiz betearazteko mobilizazioak bultzatzea dugu helburu; Baita, Hitzarmen hau eta hurrengoaren artean urte galdurik ez uztea ere. Hurrengo Hitzarmenaren negoziaketarako irakaspenak atera eta antolakuntza aldetik gure ordezkariekin elkarlan eta militantzia zein sindikalizazio lan garrantzitsua egin beharra daukagu.



Osasungintza

Osasungintzan ere, gure agintarien propaganda eta mahai- itunen atzean, osasungintza publikoak dituen arazo estrukturalak konpontzeko borondate eza oso argi geratu da urtez urte onartutako aurrekontuetan.

Honen aurrean osasungintza publikoa indartzeko, behin-behinekotasun dramatikoarekin amaitzeko, lan kargak arintzeko eta lan baldintzak hobetzeko greba eta mobilizazioak deitu ditugu bai Osakidetzan eta baita ere Osasunbidean, Horren adibide dira Osakidetzan 2022an deitu genituen 4 greba egunak eta 2023ko hasieran egindako beste bi greba egunak. Gure instituzioek agerikoak ziren arazoak ukatzeko ahalegina egin badute ere, Osakidetza eta Osasunbidearen egoera larria agenda politikoan kokatzea lortu dugu. Aipatzekoak dira ere 2022an eta 2023an EAEko hiru hiriburuetan deituko manifestazioak. Milaka eta milaka langile eta herritar atera ziren kalera egoera salatzen.

Osasunbidean LAB eta UGTk greba bertan behera utzi zuten, bezperan Gobernuarekin zehaztasunik gabeko akordio bat sinatu ondoren. Mobilizazioen bidez egoera salatu genuen.

Aipatzekoak dira ere tokian tokiko gatazkak eta kasu batzuetan lortutako garaipenak:

- Osakidetza Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroan, 31 greba egunen ostean, lortu genuen soldata diskriminazioarekin bukatzea.
- Garrantzitsua izan da ere biltegien pribatizazioaren kontrako borrokan lortutako garaipena. Mobilizazioek eta bide juridikoak lortu dute Osakidetzaren proiektua bertan behera geratzea.
- Aipatzekoak dira ere Arabako landa eremuan burututako grebak edo Arabako Osasun Mentalean deitu ditugunak (momentuz 6 egun).
- Behin-behinekotasunarekin lotuta, aipatu behar dugu Usansoloko Ospitalean lortutako garaipena. 9B solairuko 20 langileen kaleratzea etetea lortu genuen 9 egunetako greba deialdia egin ostean.

Illo honetan, aipamen berezia merezi du sindikatuak hartutako erabakia Osasun Itunaren inguruan. Foro horretan parte hartzen duten eragileek Osakidetzaren egoera hobetzeko aurrerapausoak ematen ari direlako fikzioa elikatzen duten bitartean, ELAk argi izan du hasieratik, ez genuela lagunduko errealitatearekin bat ez datorren mezu faltsu bat zabaltzen. Osasun Itunaren helburu bakarra da herritarrak baretzea eta kaleko polarizazioa etetea.

Justizia

EAEko justizian ere 2023an greba mugagabe bat aurrera eramanez genuen Eusko Jaurlaritzak azken hitzarmena ez betetzeko erabakia aldatzeko. Greba oso gogorra izanik garaipen itzela izan zen eta ondoren egin ziren hauteskundeetan, lehen sindikatu bezala gure ordezkariak sendotu genuen.

Udal-foru administrazioa

Udal-Foru esparruan, plantilak egonkortzeko egindako lan eskergaz gain, kolektibo ezberdinek aktibatze gaitasuna izan dugun tokietan garaipen batzuk lortu ditugu. Horren adibide, Donostiako Gizarte Ekintzako langileek edota Eibarko atezainak. Borroka hauek erakutsi digute, esparru honetan ere, greba egunak mahai gainean egonda langile kopuru, langileen lan baldintza, erakundearen antolakuntza... negoziatzeko eta akordioak lortzeko gaitasuna daukagula.

Administrazioa orokorra

Administrazio orokorrean ere enplegua kontsolidatzeko borrokan lan uzteak eraman ditugu aurrera. Espetxeetan, urte luzez borrokatutako transferentzia iritsi den arren ez ereduari ez eta lan baldintzetan ere onurarik ez du ekarri. Eredua eta lan baldintzak aldatzeko lan uzteak bultzatu ditugu ELAtik.

Espetxeetako transferentzia eman zenetik lau urte igaro diren honetan, espetxe sistema hobetu beharrean egungo errealitateak ezaugarri hauek ditu: ereduaren zehaztugabetasun kezkarria, espetxeetako gaitasunak gaitzen dituen barne-biztanleria kopurua, langile-falta larria eta lan-baldintzen narriadura, zeinak birgizarteratzea eragozten baitu eta langileen eta presoaren segurtasuna arriskuan jartzen baitu. Egoera hau eraldatzeko ELA sindikatuak deituta 2025 ean lan uzteak eraman ditugu aurrera, urtarilean eta ekainean hiru orduko aste beteko greba. Zoritzarrez Eusko jaurlaritzaren hautua CCOO eta UGT-Acaip ekin gutxiengoan akordioa ixtea izan da. Akordio horrek ez ditu gaur egun EAEko espetxeetako egiturazko arazoak konpontzen eta gainera transferitutako langileen eta kontratazio berrien arteko diskriminazioa ezartzen du.

Estatuko administrazioan ere, arrantza inspektoreen grebarekin bat egin eta euskal herrian lidergoa eman dugu, zoritzarrez, eskumenak ez edukitzearen ondorio beste behin ere pairatu dugu, eta sindikatu estatutalak akordioa exkax bat sinatu dute gobernuarekin.

Zaintza

Zaintza esparruan ere gure greba eta mobilizazioak ez dute etenik izan. Aurreko kongresuan, HEHko gizarte ongizate sektore osoan 3 greba egin ondoren, zaintza sistema publiko, doakoa, unibertsala eta kalitatezkoa bultzatzeko lege markoaren aldaketa ezinbesteko jo-tzen genuen eta hau hori lortzeko, bi ekimen legegile martxan jartzeko agindua eman zigun kongresuak. Alde batetik antolakuntza eta sektoreetako dinamika izugarriak eta bestetik mugimendu feministarekin batera zaintza sistema publikoa, doakoa eta kalitatezkoa lortzeko greba orokorraren lanak gure ekimen legegilea alboratzera eraman gaitu baina ez helburuak. Bestetik marko normatiboa iristen ez den bitartean eta ebazpenean adierazi bezala, bai hitzarmenetan eta baita ere pliegoen bidez, soldata duinak-hilean amaiera iristeko modukoak, ratioen hobekuntzak, lan osasuna bermatzeko neurriak, genero arrakalak... amaitzeko borroka ez du etenik izan federazioan, horren adibide batzuk:

Zahar egoitzei dagokienez, Bizkaian berriro ere greba eta mobilizazio indartsu batek ekarri ditzakeen onurak erakutsi dizkigu, 68 greba ostean, soldata igoera %23koa izan da, 2025ko urritik aurrera 1.800 Euroko soldata iritsiz, jardunaldia 35 orduko beherakoa da jada eta enpleguaren egonkortasuna eta ordezkapenak lehen egunetik izateko neurriak ezartzen ditu zein euskara planak aurrera eramateko konpromisoa.



Gipuzkoan berriz, 4 urteko gatazka eta 262 greba egun ondoren, UGT-k gutxiengoan sinatutako akordio batekin amaitu zuen. Hitzarmen horren indarraldia amaitu den honetan berriro ere greba eta mobilizazioak martxan ditugu.

Araba eta Nafarroan, hitzarmen estatalak dakarren prekarietatea eta langileen pobretzea borrokatzea jarraitzen dugu, gatazkak luze doaz, Araban 6 urte eta 50 greba egun eta Nafarroan 5 urte eta 20 egunetik gora greba egunak, erakundeen utzikeria eta konplizitatea oso agerikoa izaten ari da.

Etkez etxeko laguntzan bi errealitate desberdinak bizi izan ditugu azken urteetan. Gipuzkoan, udalerriz udalerriz sektoreko langileen lan baldintzak hobetzeko borroka eta garaipenak ez du etenik izan. Iadanik, Gipuzkoako, 20 udalerriz baino gehiagotan lortu dugu lan baldintzen hobekuntza nabariak dakartzaten akordioak adostea.

Bizkaian langileen urte luzetako borroka oso akordio exkaxean itxi zen, 12 urterako sinatu zuten hitzarmena. Hitzarmenaren lehendabiziko lau urteetan eros ahalmenaren galera 3.600 eurotako da.

Arabian, sektoreko lan baldintzak hobetzeko borroka sektoriala, gutxiengoan sinatutako akordio batekin amaitu zen. Akordioak eduki exkaxak edukitzeaz gain gutxiengoan adostu ezin daitezkeen klausula ilegalak ezartzen zituen, epaitegiak argi adierazi zuen bezala.

Zoritarrez, bai Bizkaian eta baita ere Araban, oraingoz akordio horiei alternatiba bilatzeko zailtasunak ditugu, hurrengo lau urteetako erronka bat izango delarik alternatiba horiek lantzea.

Eskuhartze sozialean, ere ez gara geldirik egon.

Bizkaian lan baldintzak hobetzeko borroka eredu garria eman zuten aurrera langileek. Borroka horrek merezi ez zuen akordioa sinatu zuten LAB, CCOO eta UGT sindikatuek. Aurreakordio sinatu ostean gainera hitzarmena sinatzerako orduan aurreakordioan ez zeuden puntu erregresiboak gehitu ziren (aldizkako finkeak lanaldi partzialean adib). Nahiz eta hitzarmena ez sinatu lan osasunean hasitako lan eredu garriak jarraipena izango du ere.

Arabian aurrera eramandako borroka akordio on batekin izan zuen amaiera.

Osasungintza pribatuan ere etengabeak izan dira langileen lan baldintza prekarioekin amaitzeko aurrera eraman ditugun gatazkak eta itxitako akordioak.

Borroka baita **aniztasun funtzionaleko** esparrutara iritsi dira. Horren adibide dira Aspace Bizkaian eta Aspace Gipuzkoan egindako grebei esker lortutako akordioak. Negoziaketa kolektiboan ezarritako plangintzak betetzeak edukietan dituen ondorioen bi adibide garbi dira aurrekoak. Gorabiden gure jendeak aurrera eraman duen gatazka ere aitzindari izan da sektore honetan.

Garraioa

Garraioan ere greba esanguratsuak eraman ditugu aurrera hitzarmenak berritzeko eta lan baldintzak hobetzeko, horien adibide dira Bizkaibus, Bilbobus edota Avanza Gipuzkoan aurrera eramandakoak.

Komunikabideak

Komunikabideei dagokienez, EITBn enplegua eta lan baldintzen hobekuntzan ibili gara, batez ere enpleguan emaitza onak lortuz. Komunikabide pribatuetan ere lan baldintzak hobetzeko borrokan ibili gara, horien adibide, Diario Vasco, Deia eta Noticias de Alavan aurrera eramandako mobilizazioak.

Prekarietate kanpaina

Gure federazioan, sektore publikoan enpleguaren egonkortasunak izan du lehentasuna, eta lege aldaketen epe mugak baldintzatuta, atzeratu egin zaigu, behin-behinekotasunetik haratago beste prekarietate elementuetan egin beharreko lanketa, lan osasunean esaterako. Hurrengo urteetan erronka haundia daukagu beraz esparru honetan. Gainera prekarietatearen lanketak, ekintza sindikalean eta antolakuntzan hobetzea ekarri behar digu, bereziki negozioak kolektiboak hilda dagoen esparrutan. Hala ere egindako detekzio lanaren ondorioz (inkestak etab.) detektatuta daukagun prekarietate elementu nagusietako bat lan osasuna eta zehazki arrisku psikosozialekin lotutakoa da. Beraz, enpleguaren egonkortzearekin batera arrisku psikosozialen aferari ere heldu behar diogu.

Arrisku psikosozialen plangintzari dagokionez, Hezkuntzan adibidez arazo larri bat zegoela ondorioztatu genuen. Prebentzio Zerbitzuen infradotazioa agerikoa da- 14 teknikari 30.000 hezkuntzako langile artatzeko- baita Jaurlaritzaren lan osasunarekiko utzikeria ere. Salaketa publikoaz gain, zentruz zentrukako informazio eskaera, batzarrak eta lanketari ekin diogu, eta lan ikuskaritzak-ELAk aurkeztutako salaketaren ondorioz- Eusko Jaurlaritzaren ez betetze bat dagoela aitortu zuen. Izan ere arrisku psikosozialen azterketak egin gabe edota eguneratu gabe ditu bere ardurapeko 600 ikastetxeetan.

Datorren ikasturtean lanketari eustea, langileen atxekimendua lortzea, lan zentroetan espazioa eta erreferentzia irabaztea, antolakuntzan pausoak ematea eta langieak sindikalizatzea izango da erronka.

Sektore pribatizatuan, sektoreko, enpresako zein zentroko hitzarmenen borrokan barneratu dugu prekarietatearen lanketa, bai soldatetan, enpleguan edo lan osasunean. Horren adibide dira zahar egoitzetan, eskuhartze sozialean eta etxer etxeko laguntzaren esparruetan egindako lanketa eta sozializazio kanpainak. Etxer etxeko laguntzan pliegoen bidez ere lortu dugu prekarietatea lantzea.

Oro har, sektore publikoko negozioak kolektiboari dagokionez duela lau urte egiten genuen diagnostikoa berresten dugu. Administrazioaren esku dagoen negozioak erabat blokeaturik dago. Kongresuak agindu moduan, langileengandik hurbilen dauden negozioak esparruak eta arazoak aurkitzen ahalegindu gara. Batzuetan lortu dugu eta gai izan gara gatazka esanguratsuak pizteko baita lorpen partzial batzuek ere, beste batzuetan ez ordea. Bide horretan jarraitzea beste aukerarik ez dugu ikusten. Lan zentroetako arazo zehatzak ekintza sindikalera eraman eta hortik antolakuntza eta ekintza sindikala piztu.

5. Antolakuntza

Azken kongresuan antolakuntza arloan aurre egin beharreko hainbat erronka identifikatu genuen: militantzia indartzea, ELAren genero-berdintasunerako plana gure federazioan garatzea, konfederazioaren kudeaketa sisteman aurrera egitea eta kanpaina konfederal, federal zein sektorekoen plangintza hobetzea, horietan sindikatuko alorrak txertatuz.



Oro har esan dezakegu 2022ko ekainean finkatutako hainbat helburu bete ditugula. Alabaina, beste batzuk hurrengo urteetan landu behar ditugu.

A) Gure militantzia indartu

Militantziari dagokionez, hiru lorpen nabarmendu nahi ditugu: batetik, militanteek sekto- re- etako negoziazio kolektiboaren planifikazio prozesuan parte hartu dutela; bestetik, sektore publikoetako afiliatu erreferenteak identifikatzeko lanari ekin diogula, eta azkenik, gure mili- tanteek gatazkei heltzeko trebakuntza hobetzeko urratsak egin ditugula.

1. Lehenengo puntua lortzeko lagungarria izan da ordezkari-talde motoreak eratze- ko erabakia; hauek parte hartze aktiboa izan dute negoziazio kolektiboaren prestakuntzan, patronalekiko negoziazio bileretan, langileekiko batzarretan, komunikabideekiko harrema- netan, mobilizazio eta greben antolakuntzan, etab.

Militanteek prozesu guztietan benetan parte hartzean hobetu ahal izan da gure lanarekiko gogobetetze-maila eta, jakina, baita emaitzak ere. Taldeok xede jakin batekin eratzen dira; behin helburu hori iritsita desegiten dira, eta lan-prozesua ebaluatzen da guztiok ikasten jarrai dezagun. Lortzen ari gara lan-baldintzen hobekuntzari ez ezik, horiek lortzeko moduei ere balioa ematea.

Harro esan dezakegu zaintzaren zenbait sektoretan hori gauzatu dugula: adinekoen egoit- zetan, esku-hartze sozialean, enplegu-zentru berezietan eta aniztasun funtzionalean; baita udal administrazioan eta udaltzaingoetan. Guztira ehundik gora militanteek, sektore batzue- tan oso ordu sindikal gutxi izanagatik ere, eragin duzue gauzak energiaz, buruaz eta ilusioz egiten ikas dezagun.

Datozen urteetan esparru hauetan talde horien hobekuntza lanean jarraitu behar dugu; eta taldeak sortu gabeko esparruetan hauen sorrera sustau eta jorratu, sektoreko hitzarmenik ez duten esparruetan ahalegin berezia eginez.

2. Liberatuekin funtzionatzen dugun sektore publikoetan, esaterako osasungintzan eta hezkuntza publikoan, liberatuek lantoki bakoitzean gure erreferente izan litezkeen afiliatuak identifikatzeko ahalegin handia egin dute.

Honi buruzko aurrerapen handia izan da osasungintzan eta hezkuntza publikoan sektoreka antolatutako liberatu-taldeekin.

Lan hau etekina ematen hasi da; dagoeneko aintzat hartzeko moduko afiliatu kopurua daukagu, hainbat eginkizunetan laguntzen ari direnak: batzarren antolakuntza, boletinen ba- naketa eta federazioari arazoen edo borrokatu beharreko prekaritate egoeren berri ematen diotenak.

Izan ere, afiliatu hauetako zenbait beren sektoreko ELAren militanteak ditugu. Noski, lan honi jarraipena eman behar zaio datozen urteetan.

EAEko, Nafarroako eta Estatuko administrazioetako beste eremu batzuetan lau urte izango ditugu aurrera egiteko.

3. Gure militanteek gatazkei aurre egiteko trebakuntzaren hobekuntza dela eta urrats oso handiak egin ditugu.

Kongresu arteko aldian federazioko liberatu berrientzako harrera planean 90 militanteek parte hartu dute. Urteko prestakuntza planean, 7 saiotan ematen diren 42 ordu, zenbait aldaketa egin ditugu. Programan prestakuntza juridikoa hedatu dugu eta berritasuna izan da enplegatu publikoaren gidaliburuaren erabilera sartzea. Gainera, berriaz txertatu ditugu

liberatuen eginkizun eta lanak. Urteroko prestakuntza honi buruzko gogobetetze-maila hobetu egin da.

Hala ere, azken balorazioetatik atera dugun ondorioa da sektore bakoitzerako saio berezi bat sartu behar dela, honako edukiekin: sektoreko erronkak eta ikasturtearen sektore plangintza. Hauek sektorial bakoitzean eskaini behar dira. Gainera, saio gehienak ikasturte bakoitzeko lehen hilabeteetan kontzentratzeko aukera aztertuko dugu.

Formatu praktikoagoa izango duten beste gai batzuk ere identifikatu ditugu: batzar eta bisiten prestakuntza eta komunikabideekiko harremana. Kasuotarako dagoeneko ikastaro pilotuak egin ditugu; hauek estandarizatu behar ditugu.

Gainera, 200 militanteri baino gehiagori trebakuntza eman diegu berdintasun planen negoziazioaren prestakuntzari buruz; 400 baino gehiagori bidezko trantsizio ekosozialari buruz, 20 militanteri etxeko langileen arretari buruz, eta beste ehuni hezkuntza eta Osakidetza sektoreetan hauteskunde sindikalen prestakuntzaren inguruan.

Aipamen berezia egin behar da sindikalizaziorako prestakuntzaz; hau idazkari federalek ez ezik 79 ordezkari-taldetako beste 336 militanteek ere jaso dute. Lan-zentroak sindikalizatu nahi ditugu konfrontatzeko eta gatazkak irabazteko gure aukerak hobetzeko. Datozen lau urteetan hau izango da ELAren apustu handia, gure militanteak gehiago eta ahaldunduagoak izan daitezen. Erronka da antolakuntzatik konfrontaziorako urratsa egitea.

Bestalde, badakigu gaitzea ez da soilik prestakuntzaren bidez lortzen; beste militanteekiko harreman-espazioak ere oso garrantzitsuak dira. Hain zuzen, 12 eskualde-batzorde federa-lak, gure federazioako 260 militante biltzen dituztenak, dagoeneko finkatuta dauden organo bihurtu dira; horietan aldizka militante gehiago sartzen saiatzen gara. Organo horietan ezta-baidarako, hausnarketarako eta erabakiak hartzeko aukera dago. Hobetu egin dugu hainbat kontutan: organoen prestakuntza, dokumentuak eta akten bidalketa bidez konpromisoak argi jasotzea. Eginahalak egin ditugu parte-hartze maila ahalik handiena izan dadin, baina hala ere badakigu hobetzeko tarte badagoela, eta horretarako lanean jarraituko dugu.

B) Genero-ekitaterako plana

Beste lehentasunetako bat izan da ELAko genero-ekitaterako plana gure federazioan gara-tzea.

Plan horrek sindikatuaren eguneroko prozesu eta errutina desberdinei eragiten die eta maila desberdinean aurreratu dugu hauetako bakoitzean, baita gure federazioan ere:

1. Kongresu arteko epe honetan negoziazio kolektiboaren bidez genero-ekitatea eragi-teko prozesua diseinatu dugu maila konfederalean, eta prozesua plan pilotu modura mar-txan jarri dugu gure federazioan, Gipuzkoako egoitzetako esparruan. Egindako lehen proba honetatik ikasgaiak atera ditugu, nahiz eta partzialak diren, izan ere, hasierako helburua zen plan pilotua sektore feminizatu zein ez feminizatuan martxan jartzea, baina azken hau ezin izan dugu gauzatu. Gainera, prozesua ebaluatzeko diseinatutako tresna prozesu amaieran egin izanak zailtasunak ekarri dizkigu egindako guztiaren ondorioak nahi bezala jaso ahal izateko. Hala izanik ere, ondorio batzuk argiak izan dira eta positiboki baloratzen ditugu; esan dezakegu Gipuzkoako zaharren egoitzetan egindako Plan pilotuak emakumeak bote-retzeko, genero diskriminazioak azaleratzeko eta hauei gure aldarrikapenetan lehentasuna emateko lagundu duteela. Gainera, baliagarria izan da ere bestelako zapalkuntzei buruzko azterketak egiteko, bereziki arraza edo jatorriarekin lotutakoak, eta hauek azaleratzeko.

Hemendik aurrera erronka daukagu plan pilotu berriak martxan jarri, ikasitakoarekin hobekuntzak txertatu eta bereziki sektore maskulinizatueta ikasketak ateratzen. Horretara-ko, datozen urteetarako plana ere martxan dugu, dagoeneko aukeraketa berria dugularik.



Gizonentzako formazio espezifikoak ere prestatzen ari gara maila konfederalean, eta hauek federazioan ezartzea izango da beste lanetako bat.

2. Negoziazio Kolektiboarekin zeharo lotuta, aipatzeko modukoa da emakumeen borrokak gure federazioan duen berebiziko pisua: Egin diren greben % 80 baino gehiago sektore feminizatuetoak izan dira. Hain zuzen ere, unibertstate-ikerketak zientifiko ugarietan parte hartu dugu, baita gure borroka ereduak -gehienetan emakumeen borroka- ezagutzeko interesa zuten jardunaldi eta kongresuetan ere.
3. Patronalekiko eta beste sindikatuakiko interlokuzioan eta negoziazio-mahaietan ere pausoak ematen ari gara. Gure emakume militanteek mahai horietan matxismoa jasan behar izan dute sarri. Gure erronka da matxosfera berehala antzemateko eta galga jartzeko gauza izatea, eta gure aurrean jokabide sexistarik ez onartzea.
4. Maila konfederalean detekzio eta informatizazio sistema bat sortu da zerbitzu juridikoek balizko genero-diskriminazio kasuak erregistra ditzaten. Informazio hau esku-izatea eta kasu hauei heldu ahal izatea, arlo juridiko zein sindikalean, gure Federazioari bide emango dio genero-diskriminazioei aurre egiteko. Azkenaldian kasu hauetako batzuen jarraipena egin dugu, eta datozen hiletan sartzen diren kasu guztietan esku-hartzea eta jarraipena bermatu behar dugu.
5. Erabaki organizatiboak dagokienez, joan den kongresu arteko aldi honetan erabakitako orduko liberazioen % 70 emakumeenak izan dira. Hau ez da kasualitatea. Federazioaren errealitatea islatu nahi dugu emakume gehiago sartuz eta sindikatuaren eguneroko bizitzan haien parte hartzea sustatuz.
6. Mobilizazio, kanpaina eta mezuetan gure irudia gehiago ari gara zaintzen. Askok ere kontu handiagoa jartzen dugu hedabideekiko harremanetan; sektore feminizatuetoan emakumeak izendatzen ditugu bozeramaile, baina oraindik ere sektore maskulinizatuetoan diskriminazio positiboa bermatu behar dugu.
7. Ezkerraldea-Kadagua, Bilbo eta Donostiako eskualdeetan sozializazio- eta kontzientizazio-guneak eratzen lagundu dugu.
8. Zaintzaren eremuan HEHko mugimendu feministarekiko ELAren aliantzan lankidetzak aktiboa egin dugu.

Datozen urteetan norabide horretan aurrera egin behar dugu, eta sendotu egin behar dugu ere emakumeen ordezkartza eremu ez feminizatuetoan; halaber, proiektu honen kide diren guztien parte hartzea eta militantzia erraztu eta bermatu behar dugu.

D) Sindikatuaren kudeaketa sisteman aurrera egin

Negoiazio kolektiboa. Arestian esan dugu plangintza hobetu dugula. Hala ere, aurrera egin beharra dago oraindik ere, egia baita gero eta prestakuntza hobea eginagatik ere oraindik hobetzeko dugula sortzen ari garen tresnen aurreratze- eta erabilera-denbora. Gainera, datozen urteetan plangintzan balorazioa txertatu behar dugu, izan ere, prozesua ixten ikasi behar dugu; oraindik ere balorazioak mugatzen ditugu negoziazio kolektiboaren inguruko kontuetara, eta haietan jaso behar ditugu beste aldagai batzuk ere, erabilitako energia eta egingako ahaleginekin edo lan-giroarekin, etab. zerikusi handiagoa dutenak.

Hauteskundeak. Oro har esan dezakegu hedatzea eta ELA ez dagoen enpresetako lana hobeto planifikatzeko erronka daukagula. Sindikatuan adostu dugu sistema berri bat, eta hau martxan jarri behar dugu hauteskundeetako emaitzak hobetzeko. Aitzitik, hauteskundeetan lan planifikatu eta sistematikoari esker ordezkariak eta liberatuek hauteskunde-prozesuko gero eta fase gehiago hartzen ari dira beren gain.

Afiliazioa. Gai honetaz espazio organiko guztietan eta atal sindikalen bileretan hitz egitea oso gurea da, betiko gaia. Berria da, ordea, tresna berriak ditugula lantokietan afiliazioa lantzeko, eta horiek baliatzen ari garen lekuetan ondo onartu dira, emaitzak izan ditugu. Erronka da afiliazioa planifikatzea gatazkei edo kanpainei ekin aurretik, eta prozesua bukatu arte aintzat hartzea. Ezinbestekoa da, halaber, afiliazio-lana sindikalizazio prozesuarekin lotzea, bi prozesuok elkar indartzen baitute.

Gure burua zaindu. Ardurak lanaldi murriztuari, hutsuneen estaldurari eta Harrera-Plan zein postu aldaketei egokitu. Kontu hauek planifikatzen jarraitu behar dugu. Gurean bajak eta amatasun- zein aitatasun-baimenak osatzea beti izan ohi da lehentasuna, baina ez da erraza. Hauetako batzuk, zenbait kasutan benetan luzeak izan direnak, osatu ahal izan ditugu eskualde-batzorde federalen militantziari esker. Jakina, harro egon gaitezke ditugun militanteekin. Lanaldi murriztua duten idazkaritzako kideekin -hauek gero eta gehiago dira-, postuak egokitu ditugu; jende berriarentzako harrera-planak nahiz ardura aldaketen ondoriozko solapeak taxutu ditugu. Esperientziak onak izan dira. Plangintza hauek ere ordukako liberatuen taldeetan egin ditugu.

Militantzia. Liberatu berriak. Kongresu arteko aldian liberatu berrien protokoloa definitu dugu. Honen baitan dozenaka elkarrizketa egin dugu liberatzeko moduan ziren langileekin. Jende gehiena ELAn militatzen hasi da, modu batera edo bestera: batzuk ordukako liberatu gisa eta besteak lantokietako erreferente moduan, zenbait kasutan ordurik gabe. Eta hau meritu handia da. Esan dezakegu jende honen harrera, prestakuntza eta lotura hobetu egin dela, proiektuaren kide egin ditugularik. Bada zer hobetua ere: urtebeteren buruan egiten den elkarrekiko balorazioa hobetu beharra dago, beti ez baitugu protokoloak eskatzen duen bezain zorrotz egiten. Gainera, administrazio sektore gehienetan ordu sindikal guztiak baliatzen ditugu, baina tokiko udal eta foru administrazioan hobekuntzarako marjina daukagu. Hilero orduak galtzen ditugu hemen; ahalegin handiagoa egin behar dugu udaletako kreditu sindikala osorik erabiltzeko. Bestalde, datu-base berriaren laguntzarekin enpresa-taldeen mapa eskura izango dugu, eta horrek erraztu egingo du ordezkari sindikalen balizko libe-razio eta izendapena, batik bat zahar-etxeetan eta osasungintza pribatuan, espero baitugu sektoreotan aukera gehiago izango dugula.

E) Gatazka eta kanpainen planifikazioa hobetu, sindikatuko alorrak horietan sartuta

Zalantzarik gabe, arlo honetan urrats handiak egin ditugu. Gatazka eta kanpainen planifikazioa aipatzen dugu horrela gatazketan garaipenak lortzeko eta kanpainak garatzeko aukera gehiago izango dugulako.

Batzutan besterik gabe ekiten diogu lanari, estrategia pentsatu eta gatazka planifikatu aurretik, baina hau egiten dugunean guztiok argiago ikusten dugu zer nahi dugun eta bakoitzaren eginkizuna gatazkan zein den, izan ere, ikusi dugunez, ez baitago militante idealik; aitzitik, militantzia era asko dira beharrezkoak gatazka bati eutsi eta irabazteko. Sektore mailako gatazka batzuk urtebete luze aurrerago planifikatzen hasi gara, hau da, aldarri-plataforma 6 hilabete lehenago lantzeko logika gainditu dugu; prozesua osorik 12 hilabete lehenago hasi gara prestatzen, inplikaturako eragile guztiekin (idazkaritza, liberatuak, ordezkariak, afiliatuak, kideko ditugunak...).

Prekaritatearen aurkako borroka da gure etengabeko kanpaina, eta honek zeharka sindikatuaren arlo guztiei eragiten die.

Lan-osasuneko arloarekin batera gure federazioko sektore askotan arrisku psikosozialen inguruko kanpaina egiten hasi gara. Nabarmentzekoak dira hezkuntzakoa eta esku-hartze sozialekoa. Eredu soziosanitarioetan arrisku biologikoei buruzko kanpainari eusten diogu, eta arrisku toxikoetan sakondu beharra izango da. Bidelagun Fundazioaren bitartez egiaz-



tatu dugu zein garrantzitsua den mingarri nabarmeneko kasuen inguruko estrategia behar bezala planifikatzea, eta lan-osasuneko alorrekin bide-orriak edo jardunbideak prestatu ditugu prebentzioko ordezkariarentzat. Honetan sakontzen jarraitu behar dugu.

Azterketa eta ingurumen bulegoarekin batera egindako lanari esker fokua jarri ahal izan dugu, esaterako, Osakidetzako edo Aldundietako zerbitzuen pribatizazio/kanporatzean... edota zenbait enpresa eta sektoretako bidezko trantsizio ekosozialerako kanpainan. Haien jakintza lagungarria gertatzen zaigu lan-zentroetan gure diskurtsoa lantzeko eta gure militanteengan kanpaina hauei ekiteagatik ilusioa pizteko.

Negoiazio kolektiboko bulegoarekin, batik bat EEE taldearekin, gatazka gogorreki heltzeko estrategia planifikatu ahal izan dugu, esaterako itunpeko ikastetxeen itxiera kasuetan.

Ekintza sozialeko arlori ere maiz jotzen dugu. Hainbat kanpainatan lankidetzaz oparotatu izan dugu, esaterako arrazismoaren eta xenofobiaren aurkakoa, etxebizitzari buruzkoa, LGTBI kolektiboaren ingurukoa edo migratzaileena. Haatik, "sindikalista klasiko" delakotik haratago kokatzen diren beste militantzien garrantzia nabarmentzen jarraitu behar dugu.

Azken urtean zerbitzu juridikoekiko koordinazioa hobetu dugu eta genero-diskriminazio zein sexu-jazarpeneko kasu susmagarriak aztertu ditugu; lan-arloko zein administrazio-auzibideko epaien analisia egin dugu lan-eremuko diskriminazio molde ezberdinak hobeto ezagutzen laguntzeko. Lan honen emaitza izan dira hainbat epai esnaguratsu; hauen berri eman behar diegu gure militanteei heldu beharreko kasu berriak antzemateko moduan izan gaitezten. Sektoreetako informazio-boletinetan jaso behar ditugu hauek.

Gainera, zerbitzu juridikoak lagun izan ditugu administrazio lanpostuak finkatzeko prozesuak izan diren urteotan. Ahalegin ugari egin dugu epaiak analizatzeko, eta saria eman digun lana egin dugu, irudimenez jokatzeko eta esperimentuak eginez.

Gure federazioko militanteak gehienbat euskaldunak edo euskaltzaleak dira. Gure militante batzuek ELAko euskara arloan laguntzen dute. Gure lana izango da etorkizunean lantalde honetako kide izan nahi duen jende gehiago identifikatzea. Tamalez, joan diren urteotan sarri egin behar izan ditugu euskararen aldeko agerraldiak, batez ere administrazioaren eta enpresa publikoen aurrean, LEPAk zirela eta; alderdi positiboa izan da deialdiek beti izan dutela oihartzun handia. Alabaina, urratsak egin behar ditugu gertakariei aurrea hartzeko eta atal sindikalen posizioa eraso baino lehenago lantzeko, eta ez ondoren, eragiteko ia aukerarik ez dagoenean.

Jakina, genero-alorrak gure federazioan lan handia egin du, laguntza tekniko eta prestatuntza eman baitu berdintasun-planen negoziazio kolektiboari heltzeko eta zaintzaren inguruko grebak planifikatzeko sektore soziosanitarioetan, edota greba feminista orokorra. Gure militante askok emakumeen taldeetan parte hartze aktiboa dute.

6. Lan osasuna: aukera berrietarako eremua ekintza sindikalean.

Esparru honetan kabinetearekin eta zerbitzu juridikoekin pandemiaren egunik gogorrenetan hasitako bideari jarraipena eman diegu.

Nahiz eta pandemiak gauza asko irakatsi, azken urte hauetan, egungo testuinguru politiko eta enpresarialak lanaren ondorioz pairatzen ditugun istripu eta gaixotasunengatik langileei errua egotzeko kultura ezarri nahi duela ikusi dugu. Gai ekonomikoan jartzen dute arreta, eta modu kontzientean alde batera uzten dute gaixotasun profesional batek edo traba-istripu batek eragin dezakeen inpaktu fisikoa, mentala eta soziala eraginpeko pertsonarentzat eta hurbileneko pertsonentzat.

Hobetzeko asko daukagun arren, urte hauetan errealtate horri erantzuten saiatu gara, negozioazio kolektiboan errealtate horri aurre egiteko plan espezifikoak sartuta edota berriazko lanketekin. Plan horiek greba-prozesuetara eramateko gai izan gara, eta, horrela, mobilizaziorako beste tresna bat bihurtu gara, kolektiboa horretarako antolatuz.

7. Euskara ataka larrian, oldarraldiaren aurrean ezin dugu eta ez dugu beste aldera begiratu!

Ebazpenetan esan bezala euskararen normalizaziorako une kritikoan gaude. Administrazio publikoetan egoera ez da batere ona. Alde batetik jasaten ari garen euskararen kontrako oldarraldi judizial, politiko eta sindikalari gehitu behar zaio EAEn Eusko jaurlaritzak onartutako Administrazioetan euskararen erabileraren normalizaziorako dekretua eta Nafarroan hizkuntzen ezagutza arautzen duen merituen dekretua.

ELAk, azken kongresuko ebazpenean onartu bezala, dekretuak baldintzatzen saiatu da bai EAEn eta baita ere Nafarroan. EAEn, Kontseiluarekin eta LAB ekin batera proposamen bat landu, sozializatu eta Eusko jaurlaritzari helarazi genion. Proposamen horretan 15 urteko trantsizio prozesu batean euskararen eta gaztelaniaren exigentzia parekatu eta bi hizkuntz ofizialen ezagutza orokortzeaz gain, euskaraz ez dakiten langileentzat lan ibilbide bat garatzea jasotzen zen lana galtzeko arriskurik gabe. Zoritzarrez onartutako Dekretu honek eutsi egiten dio euskara hiztunek administrazioetan pairatzen duten diskriminazioari. Oraindik ez da bermatzen herritarrok zerbitzu publikoak euskaraz jasotzeko dugun eskubidea, eta are gutxiago langileek euskaraz lan egitekoa. Aurrerantzean ere, borrokatzen ez badugu euskal hiztunek bigarren mailako herritarrak izango dira. Administrazioek pairatzen duten gehiegizko behin-behinekotasunak, gainera, egoera are gehiago zaildu du eta euskararen aurkako iritzia zabaltzen lagundu du.

Oldarraldi judizial, politiko eta mediatikoaren aurrean eta ebazpenean hartutako konpromisoari jarraituz, euskal langileak euskaraz lan egiteko duten eskubidearen defentsan eragile aktiboak izan gara eta izango gara. Ezinbestekoa da debatea polarizatzea hedatzen ari diren diskurtso euskarafoboei aurre egiteko.

Euskara planak eta neurriak bultzatzeko agindua genuen eta horretan ere ibili gara, sektore publikoan deitutako greban aldarrikapena izateaz gain sektore pribatuan ere pausoak eman ditugu horren adibide Bizkaiko zahar egoitzak.

Hezkuntzan EAE ko hezkuntza lege berriak ere ez dakar aurrerapausorik, Hezkuntza komunitatearen gehiengo zabal baten adostasunaren kontra, ereduaren sistema gainditzeko eta euskarazko murgiltze ereduaren sustapenerako aurreikuspenik ez jasotzeaz gain, erabat urardotu da onartutako testua. Gaurko ereduak dituen gabeziak betikotzen ditu, besteak beste segregazioa, euskara maila exkaxa etab..

Hezkuntza legearen artikulatuan egungo ereduaren sistema gaindituz euskara irakas hizkuntza orokortua izan dadin eta euskarazko murgiltze ereduaren defentsan jarraituko dugu ELAtik, euskaltzale autodeterminatzen diren alderdiak bereziki interpelatuz.

Osasungintzan, batzuen posizioa izaten ari da arazo estrukturalak erabiltzea euskararen kontra joateko: argudiatzen dute euskara dela arazo horien jatorri bat eta islatu nahi dute erreala ez den egoera bat, hau da, euskararen eskakizuna gehiegizkoa dela.

Nafarroan Gobernuak onartutako Merezimenduen Dekretuaren kontrako mobilizazioak egin ditugu eta judizialki ere salatu dugu, herritarron hizkuntz-eskubideak urratzen dituelako. Euskararen Legea indarrean dagoen bitartean, hala ere, zonifikazioak babes juridikoa



edukiko du, beraz premiazkoa da nafar guztion eskubideak aitortuko dituen lege berri bat onartzea.

Federazioaren barne-funtzionamenduari dagokionez, aurreko kongresuan onartutako konpromisoak betetzen saiatu gara:

- Batzorde Iraunkorraren eta idazkaritzaren ia jarduera guztia euskaldundu dugu. Euskara ulertzeko arazoak dituztenei itzulitako materiala edo bileraren nondik norakoak ulertzeko eta parte hartzea ahalbidetzeko laguntza eskaintzen diegu. Gauza bera esan dezakegu Batzorde Federalari buruz.
- Zenbait sektoretako bilerak –Hezkuntzan, udal esparruan, udaletxetako talde motorean etabar– euskara hutsean egiten dira. Lan-taldeetan eta Eskualde Batzorde Federaletan ere aurrera egin dugu; erdiak baino gehiago euskara hutsean garatzen dira, eta gainerakoetan euskararen presentzia esanguratsua da.
- Federazioko euskalzale taldea ere saretzen hasiak gara.
- Komunikazio alorrean ere urrats batzuk eman ditugu, esan dezakegu gure idatzi guztiak elebidunez doazela eta sektore bakan batean (hezkuntzan eta EITBn) euskara hutsezko idatziak bidaltzen ditugu

8. Aniztasun funtzionala

Inklusiora bideratutako politikak urrun daude dibertsitate funtzionala duten langileen arreta- eta zaintza-premiei eta pobrezia-erantzutetik, haien diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldataren azpitik baitaude.

Horregatik, azken urteotan egiten ari garen lanak neurri egokiak ezarri nahi ditu sektorean genero- eta ekonomia-arrakala gainditzeko, eta, horretarako, betetzen dugun gizarte- eta produkzio-balioa aitortu nahi du. Era berean, premiazkoa da aniztasun funtzionala beste desberdintasun batzuekin (generoa, pobrezia, migrazioa, etnia) gurutzatzen dela aitortzeko lan egitea, modu integralean heldu beharreko kalteberatasun handiagoak sortuz.

Badakigu erronka handia dugula aurrean. Guretzat ezinbestekoa da ikuspegi asistentzial edo medikoa gainditzea, gizarte-, kultura-, arkitektura- eta komunikazio-oztopoak eza-ba-tzeko. Sindikatuen eta gizartearen antolaketan eta pedagogian urratsak eman behar ditugu, dibertsitate funtzionala duten pertsonen autonomia, parte-hartze aktiboa eta autodeterminazioa bermatzeko. Horretarako, dibertsitate funtzionala duten pertsonen protagonista izan behar dute haiei eragiten dieten politiken diseinuan, gauzatzean eta ebaluazioan; eta, ildo horretan urratsak eman ditugun arren, erronka handia dugu aurretik.

9. Aliantzak

Lau urte hauek ez dira bereziki emankorrak izan aliantzei dagokienez. Zailtasunak izan ditugu bai federazio mailan eta baita ere sektoreka. Horren bi adibide izan dira EAEn hezkuntzan publikoan gertatutakoa, grebak LAB, Steilas eta CCOOekin deitu ditugun arren, ezin dezakegu esan aliantza sendoa izan denik. Akordioak sinatu zein ez, arazoak izan ditugu grebetan aldarrikatzeko edukiak zehaztasunera eramanez eta adosteko orduan, mobilizazio, batzar zein langileei azaldu beharrekoak adostekoan aurrez itxitako erabakiak inposatu dizkigute eta erabiliak sentitu gara, grebetan gure sigla egon zedin baina benetako adostasunik bilatu gabe.

Nafarroan esan dezakeguna da gainontzeko sindikatuak -LAB barne- guretzat guztiz ez-na-hikoak diren edukiekin, batzuetan eduki diskriminatzaileekin ere, akordioak sinatu dituztela.

Sindikatuarekin izandako harremanaz haratago, urte hauetan, hainbat eragilarekin eta zer-bitzu publikoen onuradun eta erabiltzaileekin lan egiteko ahalegina egin dugu. Egoera eta gatazka hobeto sozializatzen, bidelagunak aurkitzen eta iritzi publikoari irabazten lagundu digute. Zalantzarik gabe, ibilbide honek babes, zilegitasun eta botere handiagoa ematen digu gure aldarrikapenekin pertsona gehiagorengana iristeko. Ibilbide hori espezifikoki sakondu eta landu beharko dugu, aurrerantzean.

10. Afiliazio gora. Bereziki emakumeetan eta sektorerik prekarizatuenetan

Esan beharrik ez dago afiliazioa funtsezkoa dela bai Konfederazioarentzat bai Federazioarentzat. Afiliazioa ezinbestekoa da, sindikatuaren sostengurako ezezik gure proiektua zabaltzeko, militante berriak bilatzeko eta lantokietan edo sektoreetan indar korrelazioa eta mobilizatzeko gaitasuna hobetzeko.

Aurreko Kongresu federalean emandako datuak erreferentziatzat hartuta, 2025eko maia-tzerako itxieran, aurreko kongresuan emandako itxierarekin alderatuz 740 afiliatu gehiago ditugu federazioan. Bizi dugun egoeran eta Europako eta munduko beste leku batzuetako sindikatu handiak afiliazio-galera handiak jasaten ari diren testuinguruan, emaitza horrek balio eta garrantzi berezia du. Aurreko biltzarrean 33.676 pertsona afiliatu ginen Federazioan, eta maiatzako itxieran 34.416

Emaitza horiek ez lirateke posible izango Batzorde Iraunkorrak, idazkaritzako arduradunek, orduko liberatuek, lantoki askotako ordezkariak eta militanteek egin duten lan gogorrik gabe. Gure federazioko militantziaren konpromisoaren emaitza da. Federazioaren eta Konfederazioaren etorkizunarekin eta gure eredu sindikalarekin duten konpromiso sendoaren adierazle da.

	2021eko itxiera	%	2025eko maiatza	%	Diferentzia	%
Afiliazioa guztira	33.676	100	34.416	100%	740	2,20
Emakumeen afiliazioa	22.528	66,9	23.854	69,3	1.326	5,88

Emakumeak 1.326 afiliatu gehiago, jada ia % 70a.

Aipamen berezia merezi du afiliatuen kopuruaren hazkundeak. 22528 afiliatu izatetik 23854 afiliatu izatera pasa gara. 1.326 afiliatu gehiago gara. Kongresu arteko aldiaren, emakumeen afiliazio pisua ia hiru puntu hazi da % 66,9 tik % 69,3 ra

Bereziki azpimarragarria da federazioko sektore prekarioenetan afiliatuen kopuruak izan duen hazkundera; izan ere, federazioaren hazkundera, batez ere, sektore horien inguruan gertatu da.

Migraturiko pertsonetan %56an egin du gora afiliazioak

Migraturiko pertsonen dagokionez, azken kongresuko kudeaketa txostenean emandako datuarekin alderatuz, 1117 afiliatu zeuden federazioan, eta 2025eko maiatzean 1748 afiliatura iritsi gara. 631 gehiago gara, % 56 ko igoera izan duelarik.



Afiliazio lurraldeka

	2021eko itxiera	%	2025 ko maiatza	%	Diferentzia	%
Araba	5.268	15,60	5.668	16,47	400	7,59
Gipuzkoa	9.713	28,80	9.704	28,20	-9	-0,01
Bizkaia	16.430	48,78	16.777	48,74	347	2,11
Nafarroa	2.265	6,70	2.267	6,58	+2	0,08
TOTAL	33.676	100	34.416	100	+740	2,20

Afiliazioa eskualdeka

	2021ko itxiera	%	2025 eko maiatza	%	Diferentzia	%
Gasteiz	5064	15,00	5442	15,81	378	7,47
Urola-Kosta	841	2,50	860	2,50	19	2,2
Deba	1578	4,70	1442	4,19	-136	-8,61
Oria-Goierri	1857	5,50	1934	5,62	77	4,14
Oarso-Bidasoa	1506	4,50	1458	4,23	-48	-3,18
Donostia	4027	12,00	4115	11,96	88	2,19
Nafarroa	2265	6,70	2267	6,58	2	0,10
Gernika-Durango	1782	5,20	1718	4,98	-64	-3,50
Ibaizabal-Nerbioi	1653	4,90	1820	5,28	167	10,10
Eskumaldea	2841	8,00	2789	8,10	-52	-1,83
Ezkerraldea-Kadagua	3539	10,50	3534	10,20	-5	-0,14
Bilbo	6814	20,20	7142	20,70	328	4,81

Afiliazioa sektoreka

	2021eko itxiera	%	2025 eko maiatza	%	Aldea	%
Hezkuntza	7442	22,10	7648	22,22	+206	+2,76
Udal Foru	7193	21,40	6770	19,50	-423	-5,88
Gizarte Ongizatea (SSA)	6.878	20,40	8168	23,73	+1290	+18,75
Osasungintza	4988	15,00	5165	15,00	+177	+3,54
EAEko Autonomia-Justizia	1687	5,00	1613	4,69	-74	-4,38
Nafarroa Gob.	247	0,9	224	0,8	-23	-9
Segurtasun saila	883	2,60	539	1,56	-344	-38,00
Errepide garraioa	771	2,30	821	2,38	+50	+6,41
Tren garraioa	683	2,00	685	2,00	+2	+0,30
Estatuko administrazioa	291	0,80	271	0,70	-20	-6,87
Komunikabideak	417	1,1	332	0,96	-85	-20,00

Afiliazioaren azterketa eskualdeka egiten badugu, balioan jarri behar dugu Gasteiz, Ibaizabal Nerbioi, Oria Goierri eta Bilboko eskualdean ditugun emaitzak %4ko igoeratik gora (Gasteiz % 7 eta Ibaizabal % 10). Azken bi eskualde hauen emaitzak Araban du eragina. Arabako hazkundera epe honetan %7tik gorakoa izan da.

Sektoreen azterketa sakonagoa eginez, aurreko kudeaketa txostenean adierazi bezala, berriro ere nabarmendu behar dugu gizarte ongizate esparruan lortutako emaitza. Emaitza ikusgarria da. Jada federazioan afiliazio portzentaia altuena duen sektorea da % 23 arekin. Azken lau urteetan 1290 afiliatu gehiago ditugu, izugarria. Eta gure hazkundera %18koa da.

Bereziki deigarria da emaitza hori erosteko ahalmen gutxiko eta prekarietate handiko sektore batean gertatu dela. Badakigu esfortzua handia dala hileroko kuota ordaintzea baina haiek badakite ahaleginak pena merezi duela. Langile horiek sindikatuaren erabilgarritasuna ikusten dute, eta proportzio horretan afiliatu izana antolaketa-lan handiari eta garatutako ekintza sindikalari zor zaie. Baina, era berean, ez antolakuntza-lana ez garatutako ekintza sindikala ez lirateke posible izango afiliazio-maila hori gabe.

Hezkuntzako emaitza ere balioan jarri behar dugu, aurreko kudeaketa txostenean aurkeztutako datuak jaitsiera txiki bat izan genuen. Oraingoan aldiz 206 ko saldo positiboa dugu. Azpimarratzeko hezkuntza publikoko emaitza 189 ko saldo positiboarekin, bereziki ekintza sindikalaren, grebaren eta gatazkaren fruitua delako.

Osasun arloko emaitza ere balioan jarri behar dugu, aurreko lau urteetan bezala, saldo positiboa daukagu, eta % 3,5 eko igoera daukagu.

Udal- eta foru-administrazioetan, emaitza ez da ona. Araban ezik beste herrialdeetan emaitza negatiboa da eta jaitsiera % 5 tik gorakoa da. Udalhitzen eta udaletako negoziaketa berriak eta lan zentroetan egindako gatazka batzuk talde militanteak antolatzeke aukera eman beharko liguke; baita sekzio sindikalak antolatzeke eta langileen hurbilago egoteko aukera ere.

Garraio publikoaren sektorean ere emaitza positiboa izan da, azken urteotan egindako ekintza sindikalaren ondorioa da hau.

Aldiz, Segurtasun Sailaren eremuan balantzea negatiboa da. ELAk defendatzen duen polizia-eredua, demokratikoa, prebentiboa eta gizarte-ari kontuak ematen dizkiona, ez da erraza polizia-esparruan ulertzea, are gehiago kontrako norabidean doazen eta sindikatu korporatiboak gero eta gehiago garatzen ari direnean. Nolanahi ere, argi dugu hori dela klaseko sindikatu gisa defendatu behar dugun eredua, eta hori dela poliziak berak herritarren zerbitzura egoteko behar duen eredua.

Estatuko administrazioan ere afiliazioa galdu dugu. Justifikazio gisa balio izan gabe, eremu horretan ere enplegu-galera handia izan da.

Afiliazio datu hauetatik ondorio batzuk atera ditzakegu:

- Greba dinamikak aktibatzen baditugu, gure presentzia eta mezua ondo sozializatzen badugu eta langileak antolatzeke gaitasuna badaukagu hazten gara afiliazioan. Korrelazio zuzena dago bi elementu hauen artean.
- Eta aldi berean lan eta bizi baldintzen hobekuntzarako ezinbestekoa da greba bidezko borrorak aktibatzeke afiliazio maila altu eta militante batek ematen digun bermea.



11. Zerbitzu publikoetako lehen sindikatua izaten jarraitzen dugu

Hauteskunde sindikaletan, aurreko kongresu federalean aurkeztutako kudeaketa txostenetik 2025eko martxora arte (txostena egiterakoan itxitako azken hilabetea) izandako emailtzak hartzen ditu kontutan txosten honek.

Hego Euskal herriko zerbitzu publikoetako lehen sindikatua izaten jarraitzen dugu, % 35,46ko ordezkariarekin eta bigarren indarrarekiko 12 puntuko aldearekin. Gainera federazioan 2021ko itxieratik 2025eko martxora, 1140 ordezkari berri aukeratu diren testuinguru batean ematen da.

Ordezkari berri horien zati bat, hain zuzen ere 321 Osakidetzan egindako hauteskundeen ondorio dira. Urte luzez hauteskundeak egin gabe egon ostean, 2024 ko udazkenean hauteskunde sindikalak egin ziren. Bertan lehen sindikatu ez korporatibo izan zen ELA 80 ordezkari lortuz, hirugarren sindikatua (LAB) baino 35 ordezkari gehiago. Sindikalismo korporatiboa indarra hartzen ari den momentu batean, argi geratu da greba eta mobilizazioak daudenean, gure ereduak babesa daukala ere hauteskunde sindikaletan.

Hau esanda, geroxeago ikusiko dugun grafikatan azalduko dugun bezala jaitsiera bat dauka gure ordezkartzan, bai HEH mailan baita ere EAE eta Nafarroan. Datu horretan Osakidetza hauteskundeen pisua eragina du.

ELAren ordezkartza bilakaera lurraldeka

	2021Ko itxiera	%	2025 eko martxoa	2025	Diferencia	%
Araba	314	39,30	397	38,17	83	-1,13
Gipuzkoa	758	44,41	841	42,39	83	-1,02
Bizkaia	1181	45,48	1255	41,74	74	-3,81
CAPV	2253	44,15	2493	41,34	240	-2,81
Nafarroa	336	19,47	333	17,18	-3	-1,29
Hego Euskal Herria	2589	37,91	2826	35,46	237	-2,45

Ordezkartza sindikal zerbitzu publikoetan 2025eko martxoaren 2025ean

	GUZTIRA	ELA	LAB	CCOO	UGT	Besteak
Araba	1040	397	209	167	70	197
	100 %	38,17%	20,10%	16,06%	6,73%	18,94%
Gipuzkoa	1.736	841	599	212	68	268
	100%	42,39%	30,19%	10,69%	3,43%	13,31%
Bizkaia	2.449	1255	604	392	213	492
	100%	41,74 %	20,09%	12,78%	8,20%	16,36%
CAPV	4.976	2493	1412	771	333	953
	100%	41,34%	23,41%	12,78%	6,53%	15,80%
Nafarroa	1.625	333	492	314	359	440
	100%	17,18%	25,39%	16,20%	18,52%	22,70%
Hego Euskal Herria	7969	2826	1904	1085	761	1393
	100%	35,46%	23,89%	13,62%	9,55%	17,48%

Sektoreka aztertuz, Hego Euskal Herrian sektore soziosanitarioan lortutako emaitzak onak dira. Gure ordezkaritza sendotuz % 44 tik gora gaude. Udal-Foruko emaitzei dagokionez lehen sindikatua izaten jarraitzen dugu bigarren sindikatuari LAB i 12 puntu ateratzen diogularik.

EAE ko mahai orokorreko esparruan eta Osakidetzako hauteskundeak egin ostean lehen sindikatua izaten jarraitzen dugu, bigarren sindikatuarekiko alde handiarekin.

Nabarmentzekoa da sindikatu korporatiboen gorakada, hein batean Osakidetzako hauteskundeak egin bait dira eta baita ere gorakada eduki dute Nafarroako Gobernuko esparruan eta udaletan batze ere udaltzainei lotuta.

Hego Euskal Herriko ordezkaritza. Sektoreka 2025 eko martxoan

	GUZTIRA	ELA	LAB	CCOO	UGT	Otros
Soziosanitariao	2.295	1.029	517	321	245	183
		44,84%	22,53%	13,99%	10,68%	7,97%
Udal/ foru	1.617	645	451	231	102	188
		39,89%	27,89%	14,29%	6,31%	11,63%
Hezkuntza itun	1.465	523	407	134	124	277
		35,70%	27,78%	9,15%	8,46%	18,91%
Hezkuntza publikoa	296	64	85	18	18	111
		21,62%	28,72%	6,08%	6,08%	37,50%
Unibertsitatea	168	33	37	34	29	35
		19,64%	22,02%	20,24%	17,26%	20,83%
Osakidetza	361	80	45	29	31	176
		22,16%	12,47%	8,03%	8,59%	48,76%
EAEko Autonomia eta Justizia	404	153	115	65	31	40
		37,87%	28,47%	16,09%	7,67%	9,90%
Nafarroako Gobernua	262	36	67	45	26	88
		13,74%	25,57%	17,18%	9,92%	33,59%
Osasunbidea	84	4	13	4	6	35
		7,94%	20,63%	6,35%	9,52%	55,56%
Estatuko administrazioa	224	31	17	72	32	72
		13,84%	7,59%	32,14%	14,29%	32,14%
Komunikabideak	152	59	35	43	9	6
		38,82%	23,03%	28,29%	5,92%	3,95%
Bidaia-arien garraioa	150	44	21	26	53	26
		25,88%	12,35%	15,29%	31,18%	15,29%
Tren garraioa	150	30	17	32	28	43
		20,00%	11,33%	21,33%	18,67%	28,67%
Segurtasuna (Ertzaintza+ SAAS) 93		21				72



Sektoreka aztertuz, hego euskal herrian sektore soziosanitarioan lortutako emaitzak onak dira. Gure ordezkaritza sendotuz % 44 tik gora gaude. Udal*Foruko emaitzei dagokionez lehen sindikatua izaten jarraitzen dugu bigarren sindikatuari LAB i 12 puntu ateratzen diogularik.

EAEko mahai orokorreko esparruan eta Osakidetzako hauteskundeak egin ostean lehen sindikatua izaten jarraitzen dugu, bigarren sindikatuarekiko alde handiarekin.

Nabarmentzekoa da sindikatu korporatiboen gorakada, hein batean Osakidetzako hauteskundeak egin baitira eta baita ere gorakada eduki dute Nafarroako Gobernuko esparruan eta udaletan batez ere udaltzainei lotuta.

12. Eskerrak ematea eta onarpen eskaera

Kudeaketa-txosten honetan, kongresuen arteko aldi bakoitzean zerbitzu publikoak jasaten ari diren erasoak islatzeaz gain honen aurrean emandako borrokak islatu nahi izan ditugu. Horretaz gain, Federazio hau osatzen dugun militante guztiok egiten dugun lan handia aitortu nahi dugu.

Lehen adierazi dugun bezala, murrizketa -politika horien aurkako erresistentzia eta alternatiba izaten saiatu gara. Ospatzeko garaipen batzuk izan ditugu eta egiteko lan handia dugun arren, gure konpromisoaz eta egindako lanaz harro senti gaitezke. Hori guztia ezinezkoa izango zatekeen federazioko idazkaritzako zuzendaritzarik gabe, onena eman duten ordukako liberatuen esfortzurik gabe, lan zentroetan ELAren alde aurpegia ematen duten ordezkariarik gabe edo militante guztien konpromiso sendorik eta afiliazioaren babesik gabe. Eskerrik asko! ELA posible egin duzue, zerbitzu publikoak, herritarren oinarritzko eskubideak, egoera zaurgarrian dauden pertsonak eta lan baldintzak defendatu dituzue.

Kanpoko erasoez eta lan karga handiaz gain, antolakuntza aldaketak eta hutsuneak ere izan ditugu zenbait arduetan. Federazioaren zutabe garrantzitsuak izan diren militanteek erretiroa hartu dute edo beste esparru batzuetan militatzera pasatu dira, eta kostatu egin zaigu utzitako hutsunea betetzea. Eskerrak eman nahi dizkiegu, bihotz-bihotzez, Federazioan urteetan aritu diren, Federazioa guztion artean eraiki duten eta hainbeste eskaini diguten pertsonen. Gaur egungo militantziak asko dugu ikasteko beraingandik.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu, halaber, urte hauetan Federazioarekin bat egin duzuen arduradun, liberatu, ordezkari eta afiliatuei. Lan sindikal gogorra izan duzue. Seguruenez ezin izan duzue behar bezalako lasaitasunarekin eta laguntzarekin ikasi, eta zuen aldetik asko jarri behar izan duzue. Baina seguru ere oso une interesgarriak biziz izan dituzuela gure federazioan, bihotzez eskerrak egindako lanarengatik.

Erasoak eta zailtasunak gorabehera, Batzorde Iraunkorrak irmoki uste du kolektiboki erantzun dugula eta, kudeaketa-txosten honetan islatzen saiatu garen bezala, une bakoitzean maila eman dugula. Horregatik guztiagatik, azken lau urteetako kudeaketa-txosten honen aldeko botoa eskatu nahi dizuegu.

Bilbon uztailaren 14ean

EBAZPENAK

1 >>>

PUBLIKOA DENA ERAIKI, SOZIALETIK ABIATUTA POLARIZATU, HEMEN ERABAKI

Sektore publikoa eta izaera publikoko sektore pribatizatuak egiturazko-degradazio prozesu bat izaten ari dira Hego Euskal Herrian. Honen adierazgarri dira lan-baldintzen okertzea, oinarritzko zerbitzuen ahultzea eta merkantilizazio-logikaren goranzko joera.

Egoera horrek hainbat kausa ditu, baina inolaz ere ezin da azaldu Madrilen edo Bruselan hartzen diren erabakietan oinarrituta soilik. Espainiako Estatuak marko murriztaileak ezartzen dituen arren —hala nola Aurrekontu Egonkortasunaren Legea, birjarpen-tasa edo esku-menak birzentralizatzea—, EAEko eta Nafarroako zerbitzu publikoetan gertatzen denaren gaineko ardura nagusia bi lurraldeetako maila desberdinetako gobernuak dagokie.

EAEko eta Nafarroako instituzio desberdinek kanpotik ezarritako mugak zalantzan jarri gabe onartzeaz gain, publikoa dena kudeatzerakoan logika neoliberalak finkatzen duten politikak bultzatu dituzte eta haien konplizeak izan dira. Politika neoliberal horien ezaugarri nagusienetako batzuk hauek dira: pribatizazioa, azpikontratazioa, prekarietatea, burokratizazioa, autonomia profesionala galtzea, zerbitzuak enpresek kudeatzea eta benetako parte-hartze falta. Mugei ausardiaz aurre egin ordez, moderazio-politika bat hautatu dute, eta instituzioen egonkortasuna lehenetsi dute eraldaketa sozialaren aurrean. Are gehiago, ELA-Gizalaneetik kezka ikusten ditugu gaur egun Europako gobernuak (Espainiakoa barne, euskal alderdien onespenezekin) armen industriara bideratzen ari diren inbertsio publikoak. Zalantzarik gabe, are gehiago eragingo dio horrek gizarte eskubideen eta inbertsio publikoaren murrizketari. Hori aurretik ere bizi izan dugu, lehenik bankuen erreskatearekin, eta ondoren, Next Generation funtsekin. Askok hitz egiten da segurtasunaren inguruan, baina gutxi edo ezer ez mundu erdia pobrezia kondemnatzen duen kapitalismo basatiari buruz.

Orain, gerra ate-joka dugula, ELA-Gizalanek gogoratzen du Euskal Herriak ezetz esan ziola NATOr, eta mundu osoan bakea izatearen aldeko konpromisoa berritzen dugu, Palestinan are eta arreta handiagoa jarrita.

Egoera horretan, gobernuak ardura dituzten ezkerreko alderdiek ere uko egin diote eredu zapaltzaileari aurka egiteari. Nahiago izan dute indar arduratsu gisa agertu, instituzioek homologatu ditzaketenak, dinamika eraldatzaileak edo alternatibak eraikitzeari heldu ordez.

Desberdintasun sozialak gero eta handiagoak diren honetan, ez dago lekurik ideologia- eta programa-moderazioarentzat. Moderazioarako kontsentsu politikoak, eredu publiko indartsu, demokratiko, feminista eta komunitarioa defendatzen dutenak ordezkaritza efektiborik gabe uzten ditu. Bide batez, hutsik uzten da espazio politiko zabal bat, zeina eskuin muturreko indarrak ari dira betetzen.

Duela urte batzuetatik hona, eskuin muturrak gero eta nagusitasun handiagoa lortu du gizartearen termino politiko, sozial eta instituzionalean. ELA-Gizalanekook uste dugu gure ardura dela hori ekiditeko baldintzak sortzea ere. ELA sindikatu antifaxista da. Diktadura-garrietan hala izan zen eta hala izaten jarraituko du.



Baina Hego Euskal Herriko zerbitzu publikoak, finantzaketako eta lan-baldintzen krisiaz gain, krisi demokratiko eta zilegitasunezko bat ere ari dira izaten. Zenbait alorretan, administrazioak egitura hierarkiko, teknokratiko eta opaku bihurtu dira, eta erabakiak langileak alde batera utzita hartzen dira, gardentasunik eta benetako parte-hartzerik gabe.

Gerentzia-logika lan publikoaren antolaketan sartu da: produktibitatearen adierazleak, kontrol digitala, jardueraren ebaluazioak eta bertikaltasuna erabakiak hartzean. Horrek autonomia profesionala ahuldu du, zerbitzuaren kalitatea hondatu du eta sektorean lan egiten dutenen ezagutza eta esperientzia zokoratu du.

Publikoa denaren despolitizazioa ez da inozentea: gatazka kudeaketa teknikoaren auzi batera murriztea bilatzen du, egitura zalantzan jartzea ekidinez. Aldi berean, sektoreko langileek jasaten dituzte ondorioak, baita gizarte osoak ere, bereziki sektore zaurgarrienek.

ELA-Gizalanek publikoaren ikuspegi demokratikoa defendatzen du. Zerbitzu publikoak eskubideak bermatzeko gune gisa ikusten ditugu, baina baita herritarren burujabetza eraikitzeke espazio gisa ere. Publikoa demokratizatzeko hau esan nahi du: egiaz parte hartzeko espazioak irekitzea, langileen ahotsa errekonozitzea, baita egitura gardenak, horizontalak eta sozialki arduratsuak eraikitzea ere.

Garai honetan ez da etsipena edo neutraltasuna erakutsi behar, baizik eta aurre egin, politikak berrikusi eta eraldatu, aurrera egiteko. ELA-Gizalanentzat, oinarrietatik hasita polarizatzeko garaia da, sozialetik abiatuta, langileak inplikatur. Zerbitzu publikoen esparruan ere erabakiak hartzeko eskubidea erdigunean jartzen duen polarizazio-ariketa da hemen erabakitzea soldadak, enplegua, lan-baldintzak eta zerbitzu-eredua.

Gure posizioa argia da: zerbitzu publikoak defendatzea, eskubideak defendatzeaz gain, subiranotasuna eraikitzea da. Urte hauetan zehar, ELAk lideratu ditu gatazkak esparru publikoko sektore guztietan eta izaera publikoko sektore pribatizatuetan. Ondorioz, azken lau urteotan grebarako deiak egin ditugu esparru publikoko sektore guztietan edo ia guztietan (pribatizatu eta pribatizatu gabea). Greba horietan, laneko hobekuntzez gain, zerbitzu publikoak nola antolatu eta finantzatu behar diren hemen erabakitzeke eskubidea ere aldarrikatu dugu. Borroka horiek guztiek erakusten dute posible eta beharrezkoa dela eredu neoliberalari aurre egitea. Mobilizazio horiek erdigunean jarri dute lan-baldintzak hobetzea eta gure herrialdearentzat zer zerbitzu publiko nahi ditugun erabakitzeke eskubidea.

ELA-Gizalanek konfrontazio demokratikoko estrategia baten aldeko apustua egiten du, mobilizazioetik, gatazkatik eta langileak antolatzeetik abiatuta eraikia. Ez da erresistentzia ariketa bakarrik, ofentsiba neoliberal eta autoritarioaren aurrean etorkizun propio bat eraikitzea baizik. Ofentsiba hori hainbat esparrutan ikusten da: murrizketak, pribatizazioak, gorroto-diskurtsoak, erasoak feminismoari eta euskarari, arrazismo instituzionala.

Sindikatu batzuek alderdiak jarraitzen dituztela eta eragile sozial asko instituzioen menpe daudela salatu dugu. Horren aurrean, aliantzak eraiki ditugu ELAren moduan sistemari aurre egin gabe justizia sozialik ez dagoela uste duten sindikatu eta mugimendu sozialekin.

Migratzaileak antolatu eta sindikatzeke espazioak bultzatu ditugu, bereziki sektore feminizatu eta prekarizatuetan (zaintza, esaterako). Feminismoaren zeharkakotasuna defendatu dugu, baita barneko eta kanpoko ideologia-borroka baten beharra ere, gure sindikatuaren praxiarekin bat datorrena.

Posizio kritikoa izan dugu eta proposamenak egin ditugu administrazio publikoaren eredu hegemonikoaren aurrean:

- Lantokien bertikaltasuna, autoritarismoa eta parte-hartze falta salatu dugu. Autonomia profesionala aldarrikatu dugu hainbat sektoretan (esaterako, hezkuntzan eta osasunean) kontroleko eta burokratizazioko logiken aurrean.

- Proposamen sindikalak egin ditugu lanaren antolaketaren, zerbitzuaren kalitatearen eta instituzioen demokratizazioaren gainean.
- Esku hartu dugu zerbitzu publikoen ereduari, fiskalitateari, aurrekontuei eta gastuaren orientazioari buruzko eztabaida sozial eta publikoetan, eta ekarpena egin dugu mugimendu sozialetan, zerbitzuen eredu publiko, feminista eta komunitario baten aldeko kanpainenetan.

Horregatik guztiagatik, Gizalanen kongresu honek publikoa defendatzearekin eta eraikitzearekin konpromisoa berrestea hitzartzen du, konfrontazio demokratikoaren, subiranotasunaren eta justizia sozialaren logika batetik abiatuta, eta honetarako konpromisoa hauek hartzen ditu:

- Eskuin muturraren jarduna salatzea eta borrokatzea, lantokietan eta zerbitzu publikoetan ere, publikoaren diskurtso arrazistak, antifeministak eta suntsitzaileak ikusarazita. Horretarako, beharrezkoa da, besteak beste, sektore publikoko langileak pertsona pribilegiatu gisa aurkezten dituen kontakizunari aurre egitea, eta gizarte-eremuan zerbitzu publiko indartsu, unibertsal eta kalitatezkoen zilegitasuna eztabaidatzea.
- ELAren estrategia subiranista indartzea sektore publikoaren esparruan, lan-baldintzen, kudeaketa-ereduen eta aurrekontuen lehentasunen gainean hemen erabakitzeko eskubidea aldarrikatuta. Zerbitzu publikoen defentsan ere estrategia sindikala indartzea, hala esparru hertsiki publikoan nola kudeaketa publikoko sektore pribatizatueta.
- Gure negozioazio kolektiboko gaitasuna indartzea, baita sektore pribatizatueta ere, betiere, plantillen parte hartze, prestakuntza eta planifikazioaren bidez eta ELAtik horretarako garatutako tresnak erabiliaz. Negozioazio kolektiboa zerbitzu publikoko ereduak eraldatzeko palanka gisa ere erabiltzea.
- Murrizketen eta zerbitzu publikoen prekarizazioaren aurka borrokatzea, atzera egitea onartu gabe, edonondik datorrela ere: udal bat, diputazio bat edo gobernu bat, edozein kolore politiko duela ere.
- Gehiago kontuan hartzea langile klasea osatzen duten kolektibo guztien beharrak eta errealitateak, bereziki egoera prekarioenetan eta babesgabeenetan daudenak, proiektu sindikalaren ezinbesteko zati baitira.
- Sindikatua hauteskunde-prozesuetan indar handiagoz esku hartzeko prestatzea, gure ordezkaritza esparru publikoaren eta publiko pribatizatuaren sektore guztietan zabaltzeko.
- Gizalanen antolaketa indartzeko prozesuari jarraitzea, lana sindikalizatzea eta planifikatzea sustatuta.
- Lan publikoaren gerentzializazioa, eta kontroleko, deskonfiantzazko eta bertikaltasuneko logikak salatzea, eta autonomia profesionala defendatzea, zerbitzuaren kalitatearen berme eta laneko duintasunaren baldintza gisa.
- Langileek lanaren antolakuntzan eta erabakiak hartzen benetan parte hartzea aldarrikatzea.
- Gogoetako eta deliberamendu kolektiboko espazioak sustatzea sindikatu barruan posizionamendu estrategikoentzat.
- Aliantzak eraikitzea justizia sozialeko eta herritarren subiranotasuneko funtsezko agenda eraldatzaile bat partekatzen duten beste eragile sozial batzuekin.



**LANGILERIA ANTOLATU,
GIZARTEA ERALDATU**

MÁS SINDICATO, MÁS VIDA

Bizitza prekarizatzek, publikoa ahultzek eta diskurtso autoritarioek aurrera egiteak markatutako testuinguruan, gure erakundeak bere gain hartzen du kontrabotere-tresna gisa duen papera. Ez dugu etsitzen. Ez dugu onartzen Hego Euskal Herriko langile klasea hitz-mate erreformista faltsuaren eta mehatxu erreakzionarioaren artean harrapatuta gelditzea.

Konpromisoa hartzen dugu behetik abiatuta antolatu, mugitu eta aurre egiteko, balio feminista, antiarrazista eta antifaxistekin. Publikoa defendatzea, gure bizitzak, duintasuna eta herri gisa erabakitzeke dugun eskubidea defendatzea delako. Hemen erabakitzen badugu bakarrik biziko garelako hobeto.

2 >>>

ANTOLATU, MILITATU, SINDIKALIZATU: BOTEREA ERAIKITZEN ZERBITZU PUBLIKOAK DEFENDATZEKO

Zerbitzu Publiko, zaintza sistema eta babes sozialeko sistema publiko sendoak norbaitek behar baditu hori langile klasea osatzen dugunok gara. Osasungintza, hezkuntza edota zaintza arreta pribatua ordaindu ezin dugunak, eta gure bizitzako uneren batean sistema publiko sendo baten bermea behar izango dugunok.

Sistema sendoa izatea ezinezkoa da ordea, zerbitzu horiek eman behar dituzten langileek beraien lana modu egokian egiteko lan baldintza egokirik eta baliaderik ez badute. Bata beste gabe ez da posible. Zentzu honetan, HEHko zerbitzu publikoetan paradoxa deigarri bat ematen da: gizarte mailan zerbitzu publikoen garrantzia aitortzen den bitartean, zerbitzu horiek beraien lanarekin sostengatzen dituzten langileek lan baldintza prekarioak, lan zama desegokiak, baliabide gabezia eta aitortza eza pairatzen dute.

Hau ez da kasualitatearen ondorio, egoera honen atzean erabaki politikoak daude. HEHko erakundeetako gobernuetan dauden agintari eta alderdiek zerbitzu publikoak ahultzen dituzten erabakien aldeko apustua egin dute. Bultzatutako enplegu politikek ez diete zerbitzu publikoen behar estrukturaleri erantzuten (pribatizazioa, behin behinekotasuna, lan baldintza desegokiak) eta zerbitzu hauetan ezarritako antolakuntza ereduak ekintza kolektiboa eta lan baldintzen aldeko defentsa oztokatzen dute.

Bizi dugun testuingurua ikusita, ez dirudi gure inguruko gobernu, alderdi eta agintariek ofizioz borrokatu dutenik hau eraldatzeko.

Horregatik, ezinbestekoa zaigu zerbitzu, zaintza sistema zein babes sozialeko sistema publiko indartsu baten alde, gure federazioko sektore ezberdinetan beharrezkoak diren hobe-kuntzen zein bertoko langileen lan baldintza onen aldeko borroka eta grebak sustatzea.

Hori lortzeko funtseskoa da gure sektoreetako langileria antolatua, sindikalizatua eta militantziarako prest izatea. Hau da gure indar korrelazioa hobetzeko tresna nagusienetakoa.

Horregatik, ordezkartza-eredu instituzionalen aurrean, ELA-Gizalanez presentzian, lan planifikatuan, afiliazioaren inplikazioan eta lan-esparru bakoitzean erreferente sindikalak sortzean oinarritutako eraikuntza sindikalaren aldeko apustua egiten du.

Estrategia hori abian jartzeak erronka berezia suposatzen du esparru eta sektore batzuetan. Dituzten ezaugarriak eta abiapuntuek lanketa egokituagoa eskatzen dutelako prozesu hauen diseinu eta gauzatzean.

Nagusiki sektore publiko ez komarkalizatutako esparru eta sektore batzuei buruz ari gara. Osakidetza, hezkuntza publikoa edo administrazio orokorra, justizia eta estatuko administrazioa bezalako esparruetaz. Esparru hauek amankomunean dute:

- Oso handiak diren esparruak direla (osakidetza esaterako 45.000 langile daude, Nafarroako Gogernuan 32.000 langile, hezkuntza publiko osoan 30.000 tik gora)
- Lan zentruka antolatutako Hauteskunde sindikal sistemarik ez dutela eta liberazio bidezko ordezkartza sindikal sistema daukatela errotuta; ondorioz ordu sindikal



gutxiago dituzte eta ordezkari sindikalak ez daude lan zentruetan kokatuak. Honen eraginez, lan zentruetako egunerokotasunean txertatutako presentzia sindikala ez da existitzen.

Aurreko guztiaren ondorioz, arazoak kolektibizatzeke konplexutasuna areagotzen da. Eta arazoak banakako arazo gisa ikusten dituzte langileek eta kudeatzen ditugu guk gehienetan, ez dugulako asmatzen kolektibizazio lan horretan.

Zentzu horretan, sindikalizazio prozesuan asmatzeak aukera emango digu arazoak kolektibizatzeke, plantillak aktibatzeke eta lan-gatazka ahalduntzeke tresna bihurtzeke. Helburua ez da afiliazioan eta ordezkaritza haztea soilik, baizik eta lantokietatik ekintzarako eta gizartearen eraldatzeko gaitasuna indartzea.

Zailtasunak zailtasun, azken urteotan Gizalenen, hainbat tresna eta prozesu desberdin garatzen saiatu gara estrategia horren norabidean esparruz esparru eta sektorez sektore aurrera egiteko:

- Sektore bakoitzaren errealitatera egokitutako sindikalizazio-prozesuak bultzatu eta funtsezko sektoreetan erreferentziazko talde militanteak abian jartzea.
- Lantokietarako bisita-taldeak sustatu, afiliazioarekin zuzeneko harremana sendotzeko.
- Lan sindikal planifikatua bultzatu, inprobisazioa saihesteko eta ekintza eraldatzaileari lehentasuna emateko eta beste batzuk inposatutako agendak sahiesteko.
- Lan-osasunarekin, prestakuntza juridikoarekin edo sektore-ekintzarekin lotutako lantaldeak garatu.
- Partaidetza sindikala sustatu genero-ikuspegiarekin eta aniztasunak aitortuz.

Urrats horiek ahalbidetuko dute tradizionalki desagituratuta egon diren sektoreetan sindikatatuak antolatzeke prozesuak irekitzea, erreferenteak sortzea, ekintza kolektiboan aurrera egitea eta sindikatuaren eguneroko lanean kultura militantea errotzea.

Aurrerantzean, ELA-Gizalaneke konpromiso zehatz hauek hartuko ditu:

- Lantokiak sindikalizatzeke prozesuetan sakontzea, baliabideak eta estrategiak eremu bakoitzeko errealitatera egokituz.
- Sindikatu antolaketa indartzea sektore guztietan, bereziki atal sindikal egonkorrik ez dagoen sektoreetan.
- Afiliazioa eta ordezkaritza handitzen jarraitzea. Gero eta afiliazio egonkorragoa, konprometituagoa eta militanteagoa landuz.
- Prozesu kolektiboetan afiliazioaren parte-hartze aktiboa bermatzea.
- Bisita-taldeak lantokietara zabaltzea, afiliazioarekiko lotura indartzeko.
- Aldizkako aldizkari sektorialak sustatzea, informaziorako eta antolaketa-kohesiorako tresna gisa.
- Sektoreko negoziazio kolektiboari lotutako erreferenteak dinamizatzea.
- Eskualdeetan talde militanteak finkatzea, lurralde-ekintza indartzeko.
- Prestakuntza juridikoa eta sektoriala bultzatzea pertsona liberatuentzat eta militanteentzat.

- Ekintza sindikalari laguntzeko taldeak sortzea hainbat arlotan, hala nola lan-osasunean.
- Lan sindikal planifikatua sustatu eta garatu
- Grebak bultzatu eta hauen jarraipen egokia egin, erresistentzi kutxa hedatuz. Grebek, lan eta bizi baldintzak hobetzeko tresna eraginkorra izateaz gain, sindikalizazioan, erreferente bilaketan eta militantzian aurrera egiteko bide ematen dute.
- Antolaketa-, sindikalizazio-, negoziazio kolektibo -, militantzia- eta komunikazio-prozesu guztietan genero-ikuspegia eta aniztasunaren aintzatespena sistematikoki txertatzeko. Horretarako, prozesu hauetan denetan genero ikuspegia eta emakumeen zein sexu-genero sistema normatiborik edota heteroaraueetatik at kokatzen diren pertsonen parte hartzea sustatuz.

Ez dago zerbitzu publiko onik sindikatu antolakuntzarik gabe. Beraz, Gizalanek bere gain hartzen du militantzia zabaltzeko, lantoki guztietan presentzia eraikitzeko eta lan-eremu bakoitza errealitatea eraldatzeko gune bihurtzeko erronka. Badakigu indarra ez dela dekretatzen: eraiki egiten da. Eta hori oinarritik, konpromisoaz eta estrategia kolektiboaz egiteko konpromisoa hartzen dugu.

Bereziki landu beharko ditugu ordezkari sindikalen presentzia gabeko lan zentruetan, gure saretzea lortzeko prozesuak gauzatzeko bideak, moduak eta tresnak zein izan daitezkeen.



3 >>>

EUSKARAREN AURKAKO OLDARRALDIEN AURREAN, ZERBITZU PUBLIKOTAN EUSKARAZ LAN ETA BIZI!

Azken kongresua egin zenetik 4 urte igaro dira, eta euskararen egoerak hobera egin beharrean okerrera egin du, egoera guztiz kezkarria izanik. Urte hauetan, Euskararen aurka emandako oldarraldiak klase eta plano desberdinetakoak izan dira.

EAE bereziki kezkarriak izan dira euskararen aurkako epai euskarafoboak. 20tik gora izan dira eta epai horiek argi utzi dute euskera bigarren maila batean betikotzeko botere judizialaren asmoa. Hori gutxi balitz, egoera honetaz baliatuz, estatuko zenbait sindikaturen aldetik, Euskararen gaineko erabilpen maltzur bat egin da. Lan eskubideak eta hizkuntza-eskubideak elkarren kontrakoak direlakoaren ideia eraiki nahi izan dute, errealtatea guztiz kontrakoa denean: bi eskubideak guztiz uztargarriak dira eta gure herrian kalitatezko zerbitzu publikoa eskaintzeko ezinbestekoa da.

Bestalde, jakina da euskera oraindik ere Nafarro osoan hizkuntza ofiziala ez dela, baina Nafar Gobernuaren azken erabakiekin egoera honek okerrera egin du. Azken legealdi honetan onartutako Dekretua atzerapausu onartezina da 2017koarekin alderatuta. Dekretu berriaren arabera, euskara ez da baloratuko eremu ez-euskalduna deiturikoan eta frantsesa, ingelesa edo alemana ordea, bai. Bestetik, eremu mistoan, lanpostu batzuetan soilik hartuko da aintzat euskara. Guztiz onartezina da.

Baina egoera honetara ez gara nolanahi iritsi. EAE eta Nafarroako instituzioek eta alderdi politikoek (batez ere euskal alderdiek) badute erantzukizun bat. Izan ere, erabaki dute gai hau, Euskararena, gatazkatsua ez izatea. Hala izanik, konfontazioa ekidin nahian, euskararen bueltan hartutako neurri eta erabakiak ez dira inolaz ere nahikoak euskararen benetako normalizazioan pausoak emateko.

Amaitzeko, guzti hau ez zen posible izango estatuko komunikabide erregionalista desberdinen konplizitatearik gabe. Oldarraldiak zurituz eta horietatik eratortzen diren errelato euskarafobikoei bidea emanez.

Egoera lasgarri honen aurrean, gure sindikatuak pertsona orok euskaraz bizitzeko eta lan egiteko duen eskubidea defendatzen du, lurraldea, sektorea edo egoera edozein izanda ere. Euskara eskubide kolektiboa, kohesio sozialerako tresna eta Euskal Herriaren nortasun nazionalaren ikurra dela ulertzen dugu.

Euskara elementu apaingarri edo boluntarista bihurtzeko ahaleginen aurrean, Gizalanetik hizkuntza-politika ausarten aldeko apustua egiten dugu, sustapen sinbolikotik haratago doazenak eta lan-eremuan eta zerbitzu publikoetarako sarbidean euskaldunentzat eskubide eraginkor bihurtuko direnak.

Gauzak horrela, ELA funtsezko eragilea izan da euskara lan eta zerbitzu hizkuntza gisa defendatzeko, eta azken urteotan:

- Errealitate desberdinak kontuan hartuz, 15 urteetan administrazio publikoak euskalduntzeko proposamen bat landu eta ezagutzera eman dugu.

- Kontsolidazio prozesuetan langileen lanpostuak bermatu eta aldi berean euskara eskakizunak bermatzeko proposamen alternatiboak aurkeztu ditugu.
- Gure ordezkari eta langile ugariarekin euskarak administrazioan izan beharreko tokiaz eta garrantziaz eztabaidatu dugu, lan pedagogiko handia eginez.
- Euskara planak negoziazio prozesuetan txertatzeko lana egin dugu.
- LAB eta Kontseiluarekin aliantza lan bat egin dugu eta gai izan gara gutxieneko batzuek biltzen dituen proposamena isteko.
- Epai euskarafobikoen aurrean langileak antolatu, salaketa publikoa egin eta mobilizatu egin gara.
- Sindikatuak euskararen aldeko dinamika sozialetan eta mobilizazioetan parte hartu du.

Baina asko dugu oraindik egiteko. Euskararen defentsak transbertsala izan behar du ekintza sindikal osoan: negoziazio kolektiboan, lan-gatazketan, komunikazioan, prestakuntzan eta sindikatuaren barne-bizitzan. Hortaz, datozen 4 urteetarako, Gizalan-etik honako lan-ildoak proposatzen ditugu:

- Zerbitzu publikoen sektore guztietan euskararen normalizazioan eragile aktibo izateko konpromisoa hartzen dugu.
- Gizarte eragile nagusi bezala, erantzukizuna dugu Euskara lehen lerroa ekarri eta egoeraren arduradunak seinalatzeko eta hauei egoeraren aldaketan pausuak exijitzeko. Interpelazioa eta polarizazioa bilatu behar dugu, horretarako beste eragile, alderdi eta euskaltzaleekin aliantzak bilatuz eta landuz.
- Nafarroa osoan euskera ofiziala izateko eragile aktiboa izango gara. Eskubideak unibertsalak dira, edo ez dira. Beraz, Euskarak ofiziala izan behar du Nafarroa osoan, lehen eta bigarren mailako nafarrak egotea saihesteko. Eta hori lortzeko, zonifikazioa gainditu beharra dago, indarrean dagoen Euskararen Legea ordezkatzeko duen lege berri baten bitartez.
- Euskal langileak euskaraz lan egiteko dugun eukubidearen defentsan eragile aktiboak izango gara. Horretarako, sentsibilizazio eta motibazio lana egingo dugu sindikatuaren maila guztietan.
- Administrazioek hizkuntza eskakizunen bueltan atzerapausoak planteatzen badi-tuzte, salaketa publikoa egin eta mobilizazioak bultzatuko ditugu. Gainera, adminis-trazioarekin ditugun bilerak eta mahai negoziatzaileak euskeraz izatea aldarrikatuko dugu.
- Oldarraldi judizialaren aurrean nola jokatu definitzen ari gara. Horretarako, gure militantziarekin irizpide batzuk landuko ditugu EPE desberdinen aurka ematen diren sententzien ondorioak ahalik eta eragin txikiena izan dezaten eta euskera eskakizu-nak segurtasun juridiko osoz bermatuta gera daitezen.
- Negoziazio prozesuetan, Euskara planetan sakondu behar dugu. Sinadurarako gai garrantzitsutzat jo behar ditugu, hau da, marra gorri bilakatzeko gai izan beharko genuke epe batean eta bereziki sektore batzutan.
- Gure militante sarearen bitartez, Euskara plana eta bestelako proposamenak modu kolektiboan landu eta saretu, eta kolektibo bera ahalik eta gehiena zabaldu.
- Barne antolakuntzari begira, bilera organikoetan eman ditugun pausoak kontsolida-tu eta berriak ematen joango gara. Komunikazio alorrean ere, urrats ausartak eman



behar ditugu. Sektore batzutan baldintza objetiboak ditugu euskara hutsezko idatziak erabiltzeko, hezkuntzan hasitako bidea beste sektore batzutara zabladu behar dugu.

- Euskarazko barne-prestakuntza indartzea ordezkarien eta liberatutako pertsonen artean, prozesuak eta edukiak sektore bakoitzaren errealitatera egokituz.
- Klase sindikatu ikuspegia emanez, euskararen aldeko mobilizazio sozialetan eta plataformetan aktiboki parte hartzea.

Atzerakada politiko eta juridikoko testuinguru honetan, ELAk Euskararen benetako normalizazioarekin eta boteretzearekin duen konpromisoa berresten du. Polariazioa geroz eta beharrezkoagoa da eta defentsiban egotetik ofentsibara pasatzea ezinbestekoa da euskararen egoera iraultzeko. Euskara da gure ondarea, gure tresna, gure eskubidea eta gure erantzukizuna. Haien defentsa ez da bigarren mailako zeregina, gure borroka sindikal eta nazionalaren funtsezko zatia baizik.

Euskaraz lan eta bizi!

4 >>>

OSASUN MENTALA: ESKUBIDEA, LEHENTASUNA ETA GUZTION BORROKA!

Laneko osasuna krisi isila baina sakona ari da izaten Hego Euskal Herriko zerbitzu publikoen alorrean. Istripu fisikoak eta ageriko gaixotasun profesionalei, alor psikosoziala langileen eta hauen ahaideen bizi eta lan baldintzetan izaten ari den inpaktu suntsitzailea gehitzen ari zaio

Sektore publikoko langileek (pribatizatua eta pribatizatu gabea) lanean gero eta presio handiagoa dute egunero: gehiegizko lan-kargak, langile gutxiegi, estresa kronifikatzea, erabakiak hartzean parte hartzeko benetako espazioen falta, etengabe exigentzia kontraesankorrak jasotzea eta funtzioak argi ez izatea. Horri gehitzen zaizkio lanaren burokratizazio altua, horren kudeaketa autoritarioa eta lan-baldintzetan prekarietatea areagotzea. Errealitate horrek eragin hauek ditu: sufrimendu psikikoa, neke emozionala, antsietatea, depresioa, burnout, gatazka pertsonalak, eta, kasu askotan, lana era traumatikoan uztea –lanetik kanpoko bizitza pertsonaletan ere eragina du horrek–.

Prebentzio-zerbitzuak askotan pribatizatuak izaten dira edo zuzendaritzen menpe egoten dira, eta gainera, erantzun eraginkorrik ez eskaintzeaz gain, immunitate osoz jarduten dute. Alde batetik, esparru pribatizatuetan eskuduntza duten erakundeek irmotasunez ez dute jokatzeko zigorrik ezartzerakoan, ondorioz enpresek legea bete beharrean zehapena jasotzea lehenesten dute. Oraindik eta larriagoa da pribatizatu gabeko esparruetan administrazio publikoen egoera eta jokamoldea, zigorgabetasun osoz jarduten baitute erakundeek zehapen ekonomikorako gaitasun faltaren aurrean. Eredu beharko luketen administrazio publikoak lehenak dira araudia ez betetzen zigorrik jasotzeta libre sentitzen direlako.

Erakundeek eta enpresen eredu horrek ez dio erantzuten aurre egin beharreko arrisku-neurriak ezabatu, gutxitu edo behintzat kontrolatzera bideratutako esku-hartze bati. Aurrekontuetako diru-hornidura eskasak, giza baliabideen eta materialen faltarekin batera, gaixotzen direnak alboratzen ditu direnei, ondoeza normaltzen du eta arazoak kronifikatzen ditu.

ELA-Gizalanek uste du sektore publikoko (pribatizatua eta pribatizatu gabea) langileen osasun mentala lehentasun sindikala eta politikoa izan behar dela. Arrisku psikosozialak, arazo indibiduala ez ezik, eraldatu behar diren egiturazko baldintzen adierazpena dira. Laneko osasuna ezin da kudeaketa tekniko bat edo legea betetzea bakarrik izan; sindikatuen eta eskubideen aldeko eztabaidako esparrua da.

Isilaldi instituzionalaren eta botere ekonomiko eta politikoaren estigmazioaren aurrean, lanaren ondorioz pairatzen ditugun istripuengatik eta gaixotasunengatik langileak erruduntzen dituen kultura bat ezartzearen aurrean, sufrimendu psikosoziala ikusaraztearen eta horri aurre egiteko lan kolektiboa egitearen aldeko apustua egiten dugu. Baztertu egiten dugu kaltetuei errua botatzen dien edo benetan laneko inguru toxikoen eta kudeaketa-eredu desegokiak ondorioak medikalizatzen dituen edozein ikuspegi.

Gaixotu gabe lan egiteko, sufrimenduan aitortuak izateko, babes kolektiboa jasotzeko eta mina eragiten duten baldintzak eraldatzeko eskubidea defendatzen dugu. Osasun mentala genero-ikuspegi batetik defendatu behar da, eta aitortu behar da zer inpaktu bereizgarri duen emakumeetan, LGTBI pertsonetan, aniztasun funtzionala duten pertsonetan... eta



klase-logika batetik, ondoezak ere egiturazko kausak dituela ulertuta, hala nola: prekarietatea, lana gaizki antolatzea, boterea hierarkizatzea eta gaizki erabiltzea, eta laneko demokrazia-falta.

ELAk laneko osasuna —eta bereziki osasun mentala— sindikatuaren esku-hartzearen lehentasunezko ardatz gisa kokatu du. Gizalanek hau egin du:

- Hainbat sektoretako osasun mentalari eta arrisku psikosozialei buruzko berariazko prestakuntzak eta kanpainak bultzatu ditu.
- Langileei aholkua eta konpainia eman die ezgaitasuneko edo baja medikoko prozesuetan, edo sufrimendu psikosozialeko egoeren ondoren itzultzean.
- Ebaluazio psikosozialen prozesuan parte hartzea aldarrikatu du eta lantokietan modu eraginkorrean ezartzea exijitu du.
- Administrazioek jazarpeneko, burnouteko edo antolaketa-gatazka luzeko egoeren aurrean esku-hartze falta dutela salatu du.
- Diagnostiko psikosoziala gehitu du azterketa sindikaleko tresna gisa lanaren plangintzan eta antolakuntzan.

Datorren kongresu-denboraldirako, Gizalanek konpromiso hauek hartzen ditu:

- Arrisku psikosozialak eta osasun mentala ekintza sindikalaren lehentasun gisa kokatzea esparru publikoko sektore guztietan, horretarako plantillen benetako parte-hartzea bermatuta. Psikikoki gaixotu gabe lan egiteko eta min emozionala eragiten duten lan-inguruneen aurrean babestuak izateko eskubidea aldarrikatuko dugu.
- Arrisku psikosozialen ebaluazioak exijitzea, argi zehaztutako helburuekin, gauza-tze-epeak dituzten ekintza zehatzekin eta zeregin eta funtzio argiak esleitura. Horretarako metodologia parte-hartzailea, emaitzetako gardentasuna, esku hartzeko plan eraginkorrak eta diruz hornituak defendatuko ditu.
- Antolaketako eredu autoritarioak, burokratikoak eta prekarizatzaileak osasun mentalaren gainbeheraren egiturazko kausak direla salatzea.
- Eragindako langileei laguntzea logika kolektibo, enpatiko eta eraldatzaile batetik laguntzea, bakartzea edo errudun sentiaraztea ekidinda.
- Osasun mentaleko eta arrisku psikosozialetako ordezkariak, militanteak eta liberatuak prestatzea, aztertzea, esku hartzeko eta laguntzeko tresnak emanda. Era berean, osasun mentaleko lantalde sindikalak sortzea Gizalanen barruan, bereziki esposizio handiko sektoreetan.
- Generoko eta sexu- eta kultura-aniztasuneko ikuspegia gehitzea sufrimendu psikosozialaren diagnostikoan, laguntzan eta prebentzioan.
- Institutioek osasun mentalari lotutako gaixotasun profesionalak aitortzea sustatzea.
- Prebentzioko zerbitzuak publiko bihurtzea eta demokratizatzea sustatzea, administrazio-zuzendaritzekiko independentzia bermatuta.

Publikoa dena sostengatzen dutenen ondoeza ez da ekidin ezina. Gaixotzen, ikusezin bihurtzen eta jaramonik egiten ez duen lan-eredu baten ondorioa da. ELA-Gizalanek kolektiboki zaintzeko, mina ikusarazteko, kausei aurre egiteko eta nekatzen gaituzten baldintzak eraldatzeko konpromisoa hartzen du. Pertsona bakoitza baliagarria delako. Beldurrik gabe, minik gabe eta duintasunarekin lan egitea eskubide bat delako. Osasun mentala zaintzea ere sindikalismoa egitea delako.

5 >>>

ZAINZAK PUBLIFIKATU - ZAINZA PUBLIKOAK, UNIBERTSALAK, KALITATEZKOAK ETA DOAKOAK

Bizitza sostengatzerako garaian, askotan aldarrikatu dugu zerbitzu publikoen ezinbestekotasuna. Kapitalismoaren negozio eremutik atera eta berdintasunez, objektibotasunez eta inpartzialtasunez oinarritzko zerbitzuak eskeintzen dituzten Zerbitzu publikoak dira gizartearen ongizatea bermatzen dutenak.

Gaur egun Hego Euskal Herriko Institutuzioek sustatzen ari diren Zaintza sistemarekin ez gaude ados, ez baita bizitza erdigunean jartzen. Eskeintzen diren zerbitzuek biztanleria aktiboa lanean jarraitu eta gure haurrak, pertsona helduak, menpekotasuna dutenak etab. gehienetan prekarioak diren pertsonen zaintzera daramate. Bizitzaren eta zaintzaren kosmobisio heteropatriarkal eta erabat merkantilistari erantzuten dio horrek. Orain pribatuak diren zaintzak publikatzea gure tarteko helmuga da, eta ez azkena, orain publikoa denak, bai zerbitzuaren ikuspuntutik, baita lan baldintzei dagokionean ere, mugak badituelako bere baitan. Baina uste dugu bide honetan pausuak ematen joan behar dugula eta horretarako honakoa aldarrikatzen dugu:

- Zaintzek publikoak, unibertsalak, kalitatezkoak, doakoak eta erantzunkideak izan behar dute beti.
- Erabiltzaileek jasotzen dituzten zaintza publikoak eta horietara sartzeko irizpideak berberak izan behar dira, zuzeneko nahiz zeharkako kudeaketa-zentroa izan.
- Administrazioak kontratatutako hirugarren sektoreko erakundeetako langileek administrazioek erabiltzaileei eskaintzen zaien arretari dagokionez eskaintzen dituzten baldintza berberetan egin behar dute. Ez da onargarria pertsona berei erreparatuz, batzuen eta besteen ratioak, zerbitzu-orduak eta abar desberdinak izatea.
- Enpresa pribatuek eta sistema publikotik kanpokoek eskaintzen dituzten zainketek, halakorik dagoen bitartean, publikoan eskaintzen diren kalitate-parametro berberak bete behar dituzte, gutxienez.
- Zainketek inbertsio sozialaren zati garrantzitsua izan behar dute, eta gure zergen bidez finantzatu behar dira
- Zaintza profesionalak bermatu beharko lituztekin instituzioez gain, zainketak pertsona guztien ardura dira, eta onartu behar dugu genero joera ikaragarria dagoela, zaintza kolektibizatzen bada soilik gaindituko dena.

Azken kongresuan eman genuen datuaren arabera, Hego Euskal Herrian zerbitzu publikoa eskeintzen duten 120.000 lanpostu pribatizatuta daude, hauetako asko, zaintza eta arreta eremuak biltzen dituen esparrutakoak dira, gehienak feminizatutako kolektiboak. Euskal administrazioek, kapitalismo heteropatriarkalaren ildoekin lerrokatuta, egoera prekarioan lan egitera bultzatu ditu milaka langile, genero arrakalaren aitzindari bihurtuz. Hau ezinbesteko peajea da sektore hauetan diharduten enpresen bilakaerari erreparatzen badiogu. Enpresa multinazional eta nazionalak euren negozioak dibertsifikatu eta mozkinak lodituko dituzten beste edozein negozio iturri bihurtu dituzte zaintza sektoreak.



ELAk sektore hauetan urte asko daramatza langileak antolatu eta ekintza sindikalaren bidez lan baldintzak hobetzeko lanetan. Azken 10 urteetan ehundaka greba egun egin ditugu pribatizatutako esparru ezberdin guzti hauetan, hitzarmenak eta lan baldintzak nabarmen hobetuz:

Hor daude Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako zahar egoitzetako greba eta borroka luzeak, etxex-etxeko zerbitzuan Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako herrietan egindako greba eta garaipenak, osasungintzan diharduten ospitale ezberdinetako grebak, eskuhartze sozialean egindakoak, aniztasun funtzionalean...

Esparru hauek publikikatzearen beharraz asko hitzegin dugu eta guretzat ez da gai berria. Azken urteetan bi hito garrantzitsu izan ditugu zaintza lanen publikazioan sakondu behar dugula berresten gaituztenak.

Pandemiak irakaspen bikoitza eman zigun, bizitzak iraun dezan zaintza lanen ezinbestekotasuna eta funtsezkotasuna alde batetik. Bestetik, administrazioen jarrera, berriro ere shock egoera sektore hauetako langileen baldintzak okertzeko baliatu zuten, zerbitzu hobe batzuen itxaropen inozoa zapuztu eta langile klasea zigortuz.

2023ko azaroak 30ean Hego Euskal Herrian egin genuen lehen Greba feminista orokorrarekin Zaintza lanen garrantzia eta zaintza sistema publiko baten aldarria eraman genuen lan zentru eta kaleetara. Pandemia ostean, ELAk bultzatuta, hiru greba egun ere eginak genituen Hego euskal herriko zaintza esparruetako lan zentruetan, sistema publikoa, unibertsa- la, doakoa eta kalitatezko bat eskatzeko.

Aipatutako borroka batzuk, publikazioarekin zuzenean lotzea ere lortu dugu, Bizkaia-ko etxex-etxeko esparru batzuk, Asunción klinika Tolosan etab bezala. Gipuzkoako etxex-etxeko hitzarmenetan ere hausnarketa hau eraman dugu instituzioetara.

Zaintza lanen aitortza eta publikazioa gure praxiarekin ez badugu uztartzen slogan huts batean geratzeko arriskua dauka. Hurrengo kongresuarterko epe honetan jauzi bat eman behar dugu. Uste dugu ELAk baduela nahikoa sustrai eta inplantazio hainbat esparrutan jauzi horretan lidergotza markatzeko, baita diferentzia bat markatzeko ere. Horretarako, ELA Gizalanek publikazio bidea jorratzeko, pauso hauek gauzatzea proposatzen du:

1. Zaintza publiko berriak sortzearen aldeko borroka

Zaintza eredua jarri behar da jomugan sistema publikoaren barruan, gizarte zerbitzuen karteraren dekretuaren zerbitzu eta prestazio guztiak publikoak izan behar dira. Zerbitzuen publikazioa ematen den bitartean, lan baldintzetan arlo publikoko lan baldintzak eta zerbitzuan arlo publikoko parametro berdinetan eman beharko da zerbitzua.

Hori da, zalantzarik gabe, Gizalanen apustua. Bizitzako etapa guztietan zainketen beharrea sakontzen jarraitu behar da. Hori dela eta, adi egongo gara zerbitzu sozialen karterari buruzko dekretuaren garapenari lotutako zerbitzu edo programa berriak sortzeko, hasieratik publikoak izan daitezen. Gure erakundeak gaurko eredua pretifikatzeko aurrera eramaten duten aurpegi zuriketa hori borrokatu behar dugu.

2. Zaintza zerbitzuen pribatizazio eta esternalizazioen aurkako borroka

Gizalanek gogor erantzungo du eraso hauen aurrean. Langileak antolatuko ditu erakundeek zaintza pribatizatze edo kanporatzeko asmoa duten tokietan grebak deitzeko. (osakidetzako biltegien kasuan egin bezala...)

3. Zaintza zerbitzuen itzultzearen aldeko borroka

Gizalanek adjudikazioa amaitzean dauden zaintza-zerbitzuak publikora itzultzea sustatuko du.

- 3.1. Horretarako, lizitazioen jarraipena egingo du, eta itzultzearen aurreko urrats gisa, arlo publikoarekin ekiparatzearen alde egingo du, berriki Errenteriako EEZan eman den bezalako prozesuak landuz.
- 3.2. Politikoki, zaintza esparru zehatz bakoitzaren ardura duen instituzio publiko bakoitzari interpelazio eta kontu eske zuzenagoak helaraziko dizkiegu. Bai barne harremanetan baita publikoki ere. Horretarako, lan eremu zein instituzio guztientzako baliagarri izango den errelato amankomun bat prestatu beharko dugu. Ondoren, bakoitzak dituen berezitasunak esparru bakoitzean landuta, zaintza esparruen publikazioa zergatik eskatzen dugun eta herritarrentzat suposatuko lukeen hobekuntza pedagogia bat eraiki behar dugu, zerbitzu publikoen izaera, lan baldintzak, zerbitzuaren kalitatea, genero irakurketa etab. bilduko dituen.
- 3.3. Lan eremuetan plangintzak egin beharko ditugu afiliatu eta langileekin lanketa zehatzak egin ahal izateko. Gure lanaren ardatza den Negoziazio kolektiboarekin uztartzea dela uste dugu modurik naturalena, baina bestelako bideak ere adostu daitezke. Edonola ere, esparru hori publikatzeko pausoak definituko eta defendatuko ditugu:
 - Aldarrikapen zehatzak definituko dira, publikatzeak suposatuko lukeen lan baldintzak txertatuz, baita ere zerbitzuari ekarriko lizkiokeen onurak azalduz. Adibide moduan, etxez-etxeko langile guztiek zerbitzua publikatu ondoren %100eko lan kontratuak izango badituzte, horrek, oraingo lanaren antolaketa logika aldatu eta zaintza edo akonpainamendu beharra duten zerbitzu ordu gehiago egotea ekarriko luke.
 - Hori gauzatu ahal izateko, protokolo konkretuak landuko dira, publikazioa nola emango den definituko duena (ze baldintzetan, ze epetan,...). Puntu honetan, ezinbestekoa izango da langileen subrogazioa marra gorritzat hartzea. Aurretik eman diren beste esparru batzuetako publikazioak gatazkatsuak izan dira langileen subrogazioa instituzioek ez dutelako ontratatu eman. Diskriminazio instituzionala jasan izan duten kolektiboen (gehienetan emakumeak) leheneratzean kaleratzerik ez egotea guztiz zilegia da eta azken urteetan egon diren epaiek ere hori ondorioztatu dute.
 - Subrogazioa bermatu: Administrazioak enpresei zainketak ematea esleitzeko egiten dituen lizitazio publikoek dagoeneko ematen digute zainketei ematen dien balioaren berri. Ez du erantzukizunik lehiaketa publikoen bidez, eskaintzen pisu ekonomikoa hain garrantzitsua izanik preziorik onena ematen duenak eramaten baitu. Subrogazioa bermatuta dago plantillako langile finkoentzat, baina langile guztiek ez dute lanaldi osoa, eta langile guztiak ez dira subrogagarriak. Gizalanek lan egingo du lanaldiak lanaldi osokoak izan daitezen eta egoera jakin batzuetan bitarteko langileak subrogagarriak izan daitezen.
 - Bestalde, hirugarren sektoreko erakundeekiko lankidetzaren hitzarmenaren modalitatea erabiltzen du, baina modalitate horrek ez du jasotzen langileen subrogazioa. Horrek, zalantzarik gabe, zalantzan jartzen ditu langileak, ez baitakite hitzarmena berrikotzeko den ala ez, eta, beraz, ez dakite beren lanari eutsiko dioten. Zerbitzua beste erakunde batekin hitzartzen den kasuetan ere subrogazioa bermatzeko lan egingo du Gizalanek.
 - Hau guztia, antolakuntza lan planifikatu eta koordinatu batekin burutu beharko dugu, hasi zuzendaritzatik eta ondoren militanteen parte hartze aktiboa barneratuko duena, eta zaintza lanen aitortza/faltak atzean dakarren genero irakurketa argia islatuko duena.



- Ezinbesteko izango da ere langileen partehartzea sustatzea, prozesuaren parte izatea, kolektibo eta errealitate desberdinak kontuitan hartuz (migranteak, pape-rik gabekoa).

Langileek publikakazioa euren aldarrikapen nagusi bezala barneratu eta helburua bere egitea lortzen badugu soilik izango da posible hau egitea. Erronka honi heldu eta kolektiboaren indarra zaintzak publikatzera bideratzeko konpromezua hartzen dugu, zerbitzu publikoak indartu eta Euskal Herria justuago bat eraiki dezagun!

BATZORDE IRAUNKORRERAKO PROPOSAMENA

» **Igor Eizagirre Alza***

Idazkari Nagusia. Ertzaintza

» **Iratxe Mier Villarias***

Antolakuntza. Kudeaketa Sistema. Genero Ekitaterako Plan Estrategikoa.

» **Miren Zubizarreta Juaristi***

Hezkuntza

» **Leire Gonzalez Zubiri**

Hezkuntza. Planifikazioa

» **Esther Saavedra San Miguel***

Osasungintza Publikoa

» **Eneko Agirreurreta Serna**

Autonoma, Justizia, Estatua eta Enpresa publikoak.

» **Izai Bujanda Cambra**

Nafarroako Gobernua eta bere Enpresa publikoak

» **Urdax Bañuelos Ruiz de Erentxun.**

Udal Foru Administrazioa. Gasteiz, Nafarroa

» **Arkaitz Herreros Garai**

Bilbo, Ibaizabal-Nerbioi

» **Julio Fombellida Fernandez**

Gernika-Durango, Eskumaldea, Ezkerraldea-Kadagua

» **Txomin Lasa Ormaetxea**

Donostia

» **Aintzane Orbegoza Zigarán**

Urola-Kosta, Deba, Oria-Goierri, Oarso-Bidasoa

* Nazio Batzordeko kide bezela ere aurkezten da.



**LANGILERIA ANTOLATU,
GIZARTEA ERALDATU**
MÁS SINDICATO, MÁS VIDA